


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

GATAZKAREN IRUDIKAPENAK

EGUNGO EUSKAL ELEBERRI BELTZEAN

Ikasturte akademikoa: 2019-2020

Ikaslea: Jara Berrio Esquíroz

Gradua: Euskal Ikasketak

Tutorea: Mikel Ayerbe Sudupe

Laburpena

Lan honetan euskal gatazkak ETA osteko urteetan eleberri beltzean zer nolako irudikapenak izan dituen aztertuko dugu. Horretarako, lehenik eta behin, generoaren ezaugarriei eta generoak izandako bilakaerari erreparatuko diogu, denboran zehar honek izan dituen bereiztasun tematiko zein formalak eta hauek nola aldatu eta eraldatu diren ulertzeko. Horrela, detektibe nobeletatik polizia eleberrietara egingo dugu jauzi eta azkenik, eleberri beltzaren bilakaera ere labur bilduko dugu. Jarraian, generoak euskal literaturaren baitan izan duen bilakabidea landuko dugu, 50eko hamarkadatik hasi eta gaur egunera arteko lanak aipatuz.

Era berean, euskal gatazka jorratu duten eleberri beltzak ere zerrendatu eta euren bereizitasunak aintzat hartuko ditugu. Horretarako, euskal gatazka agertzen duten egungo euskal eleberrien corpusa zehaztu, narratologiako elementu nagusienak kontuan izanda azterketa xeheak gauzatu eta gatazkarekin loturiko bestelako interpretazio bideak ere jorratuko ditugu. Azkenik, obren erkaketen emaitzetik ateratako ondorioak bideratzeko.

Aurkibidea

0. Sarrera	4
1. Eleberri beltza eta euskal literatura	5
1.1. Eleberri beltzaren bilakaera	5
1.2. Euskal nobela poliziakoa eta eleberri beltza	7
1.2.1. Hastapenak	7
1.2.2. Ondorengo belaunaldiak	9
1.2.3. XX. mende amaiera eta XXI. mende hasiera	10
1.3. Euskal gatazka eta egungo eleberri beltza	12
2. Corpusaren aukeraketa eta metodologia.....	13
3. Eleberrien azterketa.....	14
3.1. Piztiaren begiak.....	14
3.2. Bizkartzainaren lehentasunak	18
3.3. Harrian mezua	23
3.4. Zintzoen saldoan	30
4. Ondorioak.....	36
5. Bibliografia.....	40
ERANSKINA.....	42

0. Sarrera

Esan daiteke, eleberri beltza historikoki gutxietsia izan den literatura generoa dela. Kontsumo literaturarekin eta merkatuaren morrontzarekin lotu izan den heinean, *subliteraturatzat* ere hartua izan da. Egun, generoak gutxiespen hori eta beste hainbat gabezia neurri batean gainditzea lortu duen arren, oraindik ere aurreiritzi askori egin behar dio aurre. Horren adierazle dugu, esaterako, literatura mota honen inguruan egin diren lan akademiko edota teorikoen eskasia.

Eta, hain zuzen, Gradu Amaierako Lan honetan azpigenero hori izango dugu ikergai. Ez generoaren berezitasunak nabarmentzeko, baizik eta euskaraz idatzitako egungo eleberri beltzek “euskal gatazka” deiturikoa nola landu eta jorratu duten aztertzeko

Iban Zalduaren “Onena iristeke? *Gauzaren* literaturaren norabide berriak” artikuluan datza lan honen abiapuntua. ETAREN 2011ko iragarpenaren osteko euskal literaturan gatazkak izan ditzakeen irudikapenak, ezaugarriak, diskurtsoa, eta beste hainbat kontu interesgarri zehazten ditu. Horien artean, egungo eleberri beltzean gatazkak presentzia gehiago duela ere baieztatzen du eta literatura egiteko modu batek gatazkaren gaiaren banalizazioa ekar dezakeenaren ageriko arriskua aipatzen du. Eta euskal nobela beltzaren alorrean kontua larria dela.

Beraz, genero beltzaren zale izanik, egungo euskal eleberrietan euskal gatazka nola irudikatu den jakin nahi izan dugu eta, hain zuzen, Alberto Ladron Aranaren, Iñaki Irazisabalen eta Jon Alonsoren hainbat eleberri landu ditugu. Aurrez, ordea, genero beltzaren bilakaera, euskal eleberri beltzaren ibilbidea eta gatazka klabe beltzean jorratu duten zenbait obra aipatuko ditugu.

1. Eleberri beltza eta euskal literatura

1.1. Eleberri beltzaren bilakaera

“Eleberri beltza genero poliziakoaren subgenero bat da” (Hernandez Abaitua 82: 52) Ameriketako Estatu Batuetan sortu zena. Hala ere, zailtasun handiak sortzen dira generoa definitzerako orduan. Izan ere, aro eta generoaren baitako sorkuntza literario bakoitza askotariko ezaugarrien eta xehetasunen ondorioa da eta generoaren bilakaerak ere garapenaldiak izan baititu.

Polizia eleberriaren aitzindari nagusia Edgar Allan Poe izan zen, 1881an *Graham's Magazine* aldizkarian *The Murders in the Rue Morgue* argitaratzearekin batera. August Dupin protagonistarekin generoko detektibearen arketipoa ezarri zuen batetik eta, bestetik, hilketak argitzeko modu logiko-deduktiboaren aldeko apustua egin zuen (SánchezZapatero2017: 121). Polizi nobela hiru ezaugarri orokoren gainean eraikitzen da: detektibe bat, argitu gabeko hilketa harrigarri bat eta hilketa argituko duen azalpen argi eta arrazionala. Hein batean, hilketak sinbolikoki hankaz gora jarri duen egoera berrezartzera letorke detektibe bere arrazoiketa logiko eta argumentatuarekin. Hori horrela, “polizia nobela intelektual” ere deitu izan zaio ildo horretako lanei. Generoaren adar horrek Erresuma Batuan jo zuen gailurra Conan Doyle-ren Sherlock Holmes-ekin eta ildo horrek jarraitzaile asko izan zituen: besteak beste, Edgar Wallace eta G. K. Chesterton, G. Leroux edota S.S. Van Dine –zenbaitzuk, fikzioaz gain generoaren teoriak ere idatzi zituzten. Azkenik, ezin Agatha Christie aipatu gabe utzi, Hercule Poirot detektibearen kontakizun arrakastatsuekin.

Ameriketako Estatu Batuetan, aldiz, polizia eleberria nobela beltzera lerrokatuko da, Dashiell Hammet, Jim Thompson eta Raymond Chandler bezalako idazle esanguratsuen eskutik. Lege lehorrak eta 29ko *crack*aren ondorengo urteetan eleberri beltza garatzeko baldintza egokiak eman ziren; gizartea politikari zein poliziaren ustelkerian murgilduta geratu zen eta “krimen-giroak zabaltzeko erraztasunak eman zizkion kontakizun poliziakoari” (Hernandez Abaitua 1982: 55). Lehendabiziko nobela beltz gehienak *pulp* aldizkarietan kaleratu ziren eta *Black Mask* deiturikoan argitaratu zituzten euren lanak Hammet eta Chandlerrek, adibidez.

Hammeten *Uzta Gorria* (1929) obran Continentaleko agentea da protagonista eta *Maltako belatza* (1930) eleberrian Sam Spade detektibe pribatua. Bi protagonistek garaiko eleberri beltzaren ezaugarri nagusietako bat definitzeko balio dute. Esaterako, politikoki zuzena ez den ikertzaile gogorraren irudia, poliziarekiko mesfidantza eta gorrotoa adierazten dituen, eta ondorioz, errealitatearen eta gizarte kritika egiten duen ikuspuntua gailentzen dena. Horregatik izendatu izan da, besteak beste, “hardboiled” gisa. Izan ere, “sistemaren barruan egonda ere, sistemaren ertzean bizi den kanpobegirada bat behar da bertsio ofizialak zer ezkututzen duen jakitera iristeko” (Alonso 2016)¹.

Urte batzuk beranduago argitaratu zuen Chandlerrek nobela beltzaren inguruan teorizazioa biltzen zuen *The Simple Art of Murder* (1950) lana eta, besteak beste, Hammeten ekarpena maxima honekin laburbildu zuen: “Hammett extrajo el crimen del jarrónveneciano y lo depositó en el callejón” (Chandler 1980: 211).

Bestetik, *Betiko loa* (1939) edota *Adiorik ez* (1953) bezalako nobela beltzetan eta, bereziki, Chandler-ek sortutako Philip Marlow detektibeari esker, beste ezaugarri bat gehitu zion protagonisten perfilari: poliziarenganako gorrotoa oraindik presente badago ere, sistemaren barruan autoritaterik ez duenez, zenbaitetan haren laguntza beharko du eta ondorioz, konplizeak edo laguntzaileak izango ditu. Bestetik, Chandlerren estilo zaindua dela eta, intrigaren zein erritmoaren dosifikazioa eta ekintzen atzeko hausnarketen garrantzia nabarmendu izan da. Ondorengo urte eta belaunaldietan, ildo horretako eleberri beltzaren generoan gailendu diren idazleak Horace McCoy, James M. Cain, Jim Thompson edota Patricia Highsmith dira, askoren artean.

1960ko hamarkadan 1930-1950 bitartean sortutako eleberri beltzaren moldearen krisialdia heldu zen eta Gerra Hotzaren ingurumarietan generoaren noranzkoa aldatuz joan zen. Bestalde, espioi pelikulen *boom*-a iritsi zen eta hau izan zen garai honetan ekoiztu ziren nobela askok *thriller* joera hartu izanaren arrazoietakoa bat. Gaia ez ezik, espazioa ere aldatu egin zen (nazioarteko hotelak, eskiguneak...) eta honek agente sekretuaren irudia ekarri zuen (Alonso Ruiz 2015: 141). Belaunaldi honetako idazleen artean, esaterako, E. MacBain, C. Himes eta R. Bloch ditugu, 1956tik aurrera jada *thrillerantz* jo zutelarik.

¹ Jon Alonsoren *Beltzaren koloreak* (2016, Susa) liburua bertsio elektronikoan kontsultatu dugunez, ezinezkoa izan zaigu iturri horretako aipuen orrialdeak zehaztea.

Honela laburbiltzen du Alonsok (2016) nobela beltzaren jatorriko bilakaera:

Nobela beltzak, hasiera batean, jatorrian, gizartearen gaineko begirada kritiko bat proposatzen du, nolabait esan gizartearen ertzean dagoen pertsonaia baten ikuspegiaren bidez; pertsonaia hori, askotan detektibe bat da, baina salbuespenez ez bada, inola ere ez da polizia; are, begirada hori proposatzen duen pertsonaia hori, edozein izanik ere, poliziaren antagonista da, horixe da bere ezaugarri garrantzizkoenetakoa (...) Aurrerago, protagonistaren eta Poliziaren arteko antagonismoa pixka bat leuntzen hasten denean, gaiaren gordinak markatzen du nobelaren paisaia eta giroa: miseria ekonomikoa, boteretsuen gehiegikeria eta abusua, hipokresia, itxurakeria, sal-eroskeria, adulterioa, intzestua, talde batzuen marjinazioa, arrazismoa, diru-gose neurrigabea... Protagonistak, detektibeak ez direnean, krimenak egiten dituzten polizia perbertsoak dira, edo miseriak eta egoerak krimenera bidali dituzten gizon-emakume arruntak, edo buru-gaixo patologikoak

Hurrengo hamarkadetan, eleberri beltza Europarantz hedatzearekin bat, polizia-protagonistaren irudia eraikitzen, eta neurri batean egokitzen, joan zen. Frantzian, hasiera batean eleberri amerikarrak itzuli zituzten *Série Noirs* delakoan baina pixkanaka “polar” izeneko nobela poliziakorantz hurbiltzen joan ziren. Manchette-k, kasu, *Laissez bronzer les cadavres!* (1971) nobelaren protagonistatzat polizia hautatzearen alde egin zuen Frantzian, eta nagusiki AEBtan garaturiko detektibearen irudia Europan txertatzeko zeuden zailtasunak agerian utzi zituen. Espainiako literaturan ere ideia honi aurre egin behar izan zioten –Vázquez Montalbanen eleberri beltzak dira lekuko– eta detektiberik ezean, askoz erosoago eta praktikoagoa suertatzen zen poliziaren, inspektorearen edo komisarioaren hautuarekin bat egitea.

Hori horrela, XX. mende bukaerako Europako egile nagusiek ere ildo horri jarraitu zioten eta Montalbanek Pepe Carvalho protagonista zuen liburuak argitaratu zituen, A. Camillierik Montalbanorenak eta H. Mankellek Wallander pertsonaiarenak, arrakasta itzela izan duten gutxi batzuk aipatzearen.

1.2. Euskal nobela poliziakoa eta eleberri beltza

1.2.1. Hastapenak

Euskal eleberrigintzari dagokionez, Jose Antonio Loidiren *Amabost egun Urgain'en* (1955) dugu euskaraz idatzitako lehen polizia eleberria. Urte berean Euskaltzaindiak literatura lehiaketa bat antolatu zuen eta lehenengo saria Jon Etxaideren *Joanak Joan*

(1955) nobelak eskuratu bazuen ere, Loidiren *Amabost egun Urgain'enek* aipamen berezia jaso zuen (Cillero 2007: 603). *Egan* aldizkarian hitz hauek eskaini zizkion Mitxelenak (1955: 73):

Artean ezer argitara eman ez zuen autore baten lehen lana, eta polizi nobela, alafede. Ez naiz noski bakarra liburua berehala baztertzeko duena, polizi sail horretan, egilearen izena Gomez, Perez edo gisa horretakoa dela ikusi orduko. Eta ez digu artean inork erakutsi Agirre eta Zabala, Gomez eta Perez baino hobeak direnik gai horretan.

Iruzkinean aurreratzen da aukeraturiko generoak garaiko nobelagintzari ekarri zion berritasuna eta, era berean, Mitxelenak Loidiren estiloa ere goraiatu zuen. Cillerok “Martin Garaidiren fitxa: euskal detektibeen aitoren atzetik” artikuluan eleberriaren azterketa sakona eskaini zuen eta bertan aditzera eman zuen bezala, “Garaidi pertsonaia aztertuta, lehen euskal detektibe nobela klasikoaren ahultasunak eta balioak antzematen ditugu” (2015: 475). Ahulezien artean, idazlearen ikuspuntu orojakilearen aurrean protagonistaren autonomiarik eza eta detektibearen lan-harremanak eta teknikak oso azaletik deskribatu izana azpimarratzen ditu; baina aurretik euskal nobelagintzan garatu ez zen genero bat landu zuela kontuan izanik, pertsona gizatiar, umoretsu, moderno eta zientifikotasunaren aldeko protagonista sortu izanaren balioa ere nabarmentzen du Cillerok. Detektibe nobela klasikoaren estereotipoarekin bete-betean bat egiten ez badu ere, aipatu izan daga garaiko polizia eta zuzenbide sistemak ere ez zuela giro egokirik eskaintzen eleberri poliziakoak Euskal Herrian modu sinesgarrian txertatzeko. Beraz, Cilleroren esanetan, “Loidik generoaren konbentzioak bere erara erabili zituen hibrido bat sortzeko” (2015: 478).

Sarasolak “novelapoliciaica bien estructurada de original deselance, muy bien acogida por crítica y público” (1976: 158) gisa iruzkindu bazuen ere, euskal literaturaren historiografia eta ikerketa garaikideagoetan, eleberri beltzaren aitzindari gisa aipatu arren, ezbaian jartzen dira nobelaren balioak. Hernandez Abaituak honela epaitu zuen:

nobela horrek duen akatsik nabarmenena Chandler-en hitz batzuk ekarriz argi daitekeela uste dugu: “Lo importante es que la explicación sea interesante en sí misma, algo que el lector espera con impaciencia, y no una nueva historia con toda una serie de personajes nuevos e irreconocibles sacados de la manga para justificar una intriga que hace aguas”. Euskal lehen nobela poliziakoan, bestalde, ez dago ezta asinatu derrigorrezkoa ere (1982: 62).

Olaziregik ildo berean dio: “Loidiren teknika E. A. Poe generoaren maisu handiak erabilitakotik urrun dago, zeren eta elkarrizketen ahultasunari metairuzkinak gaineratu behar zaizkio, eta horiek suspensea deuseztatu eta erritmoa mantsotu egiten dute” (2002: 68). Aldekoak, aldiz, “sekulako berrikuntza” izan zela adierazi zuen, “ez hainbeste kontatzeko trebetasunagatik (egia esan, nahikoa eskasa baita: ez dago hilketarik), nola polizia-gertaerek beren baitan dakarten objetibotasun eta errealismoagatik” (2008: 251). Azkenik, Otaegik (2008) eginiko azterketan *Hamabost egun Urgain'en* eleberritari eginiko beste hainbat kritika negatibo ere biltzen dira – pertsonaiak estatikoegiak izatea (Toledo)–; baina baita eleberria goraiatzan duten hitzak ere: Garate, Etxaniz eta Cillerorenak, kasu.

1.2.2. Ondorengo belaunaldiak

1977 urtera arte, *Amabost egun Urgain'en*, Txomin Peillenen *Gauaz ibiltzen dena* (1967) zein *Gatu Beltza* (1973) eta Mariano Izetaren *Dirua galgarri* (1962) izan ziren polizia eleberririk irakurrienak (Otaegi 2008). 70eko hamarkadan, ordea, apurka bada ere euskal eleberrigintza modernoa ugaltzen joan zen eta eleberri poliziakoaren baitan ildo eta azpigenero berriak sortu ziren. Horrela, Loidiren irakurle izan ziren idazleen belaunaldi berri bat agertu zen, hala nola, I. Sarasola, J.A. Arrieta, A. Lertxundi, X. Gereño edota G. Garate.

Polizia eleberrigintza dela eta, Xabier Gereñoren literatur eginbidearen joera nagusia kontsumo-literatura sortzea izan bada ere, hasiera batean haren nobeletan euskal gizarteak bizi zituen tirabirak islatu zituen (Kortazar 2009). 30 eleberritik gora idatzi ditu, gehienak nobela poliziako edo espioi-eleberriak: *Hiltzaile baten bila* (1975), *Espioitza* (1977), *Osaba Gabrielen asesinatzea* (1978), *Konspiratzailea* (1985)...

Gotzon Garatek, aldiz, polizia eleberri klasikoaren ildoak alde batera utzi eta AEBn garatutako joerari heldu zion, haren *Izurri Berria* (1982) nobelaren eskutik euskal eleberri beltzaren aitzindari bilakatu zelarik. *Alaba* (1984) eleberriak sekulako harrera izan zuen irakurleen aldetik eta hurrengo nobeletan ildo honi jarraituko dio. Krimenak, prostituzioa eta drogak izango dira nagusiki jorraituko dituen gaiak.

Iñaki Zabaletak 1985an argitaratu zuen *110 Streeteko geltokia*, gerora euskal literaturako *best-* eta *long-seller* bilakatu dena. Eleberri honetan, gainera, Euskal

Herriko gatazkatik ihes egin nahian iristen da protagonista New Yorkera, baina nobelan gai horrek ez du garapenik, protagonistak atzean utzi duen zerbait bailitzan.

Bestalde, aipatu behar da, polizia eleberriaren eta eleberri beltzaren paradigma estuetan sartu ez arren, 80ko hamarkadako hainbat euskal eleberri genero beltzaren esparrura hurbiltzen direla. *Hamaseigarrenean aidanez* (1985) nobelaren gainean, “badago Lertxundirengan euskal nobela poliziakoa sortzeko ahalegina” berretsi eta detektibearen irudia eraberritzea aipatuko ditu Kortazarrek:

Eta guk? Oraindik ez dugu horrelako arketiporik: bistan dagoenez, detektibea generoari egindako jarraipen itsu bat baino ez da-eta. Geure ikertzaileak behar ditugu, gure gizartean benetan ikerketan jardun direnak. Problema teorikoa planteaturik dago. A. Lertxundik nobelaren topikotik irteten den soluzioa eskaini du: arrazoi pertsonalengatik egin ikerketa, arazo afektiboengatik. Formula kopiatzetik irten eta jokabide orijinala, honako baliagarria, ematen saiatu da behintzat (Kortazar 1983)².

Era berean, eleberri beltzaren eta errealismo beltzaren ertzetan mugitzen diren nobelen artean zerrendatu izan dira Lertxundiren *Tobacco Days* (Erein, 1987) eta Pako Aristiren *Kcappo (tempo di tremolo)* (1985), *Irene (tempo di adaggio)* (1987) eta *Krisalida* (1990) trilogia ere, besteak beste (Olaziregi 2002: 136).

1.2.3. XX. mende amaiera eta XXI. mende hasiera

Ikusi berri dugun bezala, 70eko hamarkadako euskal polizia eleberrietan ingeles klasikoak izan ziren eredu eta 80ko hamarkadaz geroztik, eleberri beltz amerikarren ereduak joan zen nagusitzen. 90eko hamarkadatik aurrera, garaiko eleberriak *thriller* modernoaren ezaugarriak eta zinemagintzako garatutako ekarpenak bereganatzen hasi ziren, estrategia narratiboak eta baliabide literario berriak arakaturik. Nobeletako ebazpen-amaiera edo gertakarien argibideetan jarraitutako urrats eta metodoen lehentasuna garrantzia galduz joan zen eta kritika sozial edota politikoa izan ziren erdigunean jarri zituzten ezaugarriak. Besteak beste, Cillerok eleberriok zerrendatzen ditu (Olaziregi 2002: 162): Itxaro Bordaren *Amaia Ezpeldoiren* trilogia, Aingeru Epaltzaren *Ur Uherrak* (1993); Bernardo Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993);

²Bestalde, sarritan aipatu da detektibe nobelaren klabeen atzean, Lertxundik garai hartako euskal gizartearen gehiengoak indarkeriaren aurrean zuen isiltasuna salatu nahi izan zuela.

Jon Alonsoren *Katebegi galdua* (1996) eta Harkaitz Canoren *Beluna Jazz* (1996) eta *Pasaia Blues* (1998).

Itxaro Bordaren Amaia Ezpeldoi detektibearen eleberrietan³, esaterako, kritika soziala eta politikoa agertzen da; krimen bat argitzearekin batera euskal gizartean dauden gatazkak islatzen ditu: egoera politikoa, euskara, industralizazioa, intsumisioa... Alde honetatik “hardboiled” estiloko nobelekin bat egiten du, baina badu detektibe gogorraren iruditik aldetzen duen berezitasun bat: ikertzailea emakumea da eta lesbiana, gainera. Aingeru Epaltzak gatazka sozial eta politikoa lantzen du *Ur uherrak* (1998) eleberrian, buruzagi politikoen arteko borroka, poliziaren errepresioa, prentsaren manipulazioa eta indarkeria azaleratuz. Aldiz, *Rock'n'Roll* (2000) mardulean eleberriz beltzaren ohiko elementuetara mugatu eta gaztakaren irudikapenik ez da agertuko nobelan; bai, ordea, hilketa bitxi, lapurreta, poliziak, kazetariak, sektak... Ez alferrik, eleberrian Chandlerren *The Simple Art of Murder* aipatzen da eta, azken finean, nobelak fidelki betetzen ditu bertako hainbat ezaugarri (Olaziregi 2002: 171).

Eleberriz beltzaren muga estuetan nekez sartu daitezke Hasier Etxeberriaren *Mugetan* (1989), Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993) eta Harkaitz Canoren *Pasaia Blues* (1999). Baina hiruetan euskal gatazkarekin lotura zuzena duten gertaerak azpigeno horretako ezaugarriekin zipriztintzen direnez, zilegi da bi hitz aipatzea. *Mugetan* liburuan gatazkaren inguruko problematikak azaleratzeko “eleberriz beltzetako hainbat elementu ezagun” txertatzen dira (Olaziregi 2002: 167). Era berean, Atxagaren eleberriz 90ko hamarkadako euskal eleberrigintza errealistarako bira gauzatuko du eta, bereziki, espazioaren eta erritmoaren tentsio uneak ezin hobeki baliatzearen lotu izan da *Gizona bere bakardadean* eleberriz beltzaren edo, hobeki esan, thrillerraren ildoan. Azkenik, Canoren *Pasaia bluesen* euskal gatazkaren elementuak oinarri izanik ere (komando barruan dagoen satorra asmatzea eta komandoa zelatatzen duen ertzainaren istorioa korapilatuz), eleberriz beltz oso *sui generis*a proposatu zuen, “faltso-poliziakoa” nonbait, egilearen hitzetan (Olaziregi 2002: 177).

³Amaia Ezpeldoiaren sagari 1994an eman zion hasiera *Bakean itzi arte* nobelarekin eta harrez gero kaleratu ditu, besteren artean, *Amorezko pena baño* (1996), *Bizi nizano munduan* (1996) eta *Jalgi hadi plazara* (2007). Egun, oraindik ere itxi gabe dagoen liburu-sailari jarraipena ematen dihardu Bordak eta Amaia Ezpeldoiaren azken abenturak 2015an kaleratu baziren ere *Ultimes déchets* elebidunean, 2019an Booktegik edizio digitala jarri du eskuragarri.

Edonola ere, XXI. mende hasierako hamarraldian gatazka eta genero beltza uztartzen dituzten eleberriak salbuespen izango dira eta Jon Arretxe, Iñaki Irasizabal eta Ladron Aranaren nobela beltzek sekulako arrakasta izango dute. Horrela, 2011ko ETaren iragarpenaren ondoren, badirudi euskal gatazkako elementuak eleberri beltzean jorratzeko joera ugaldu egin dela eta halaxe jazo da Irasizabal eta Ladron Aranaren eleberrietan, baita Jon Alonso eta Edorta Jimenezen azken lanetan ere. Hauen artean, zenbaitek, (H)ilbeltza izeneko jaialdian aurkeztu dituzte euren lanak, Baztanen 2015ean sorturiko eleberri beltzaren inguruko literatur ekitaldian. (H)ilbeltza beka ere sortu dute eta, adibidez, laguntza horri esker itzuli du Josu Baranbonesek Highsmithen *Lardaska* (2019) euskarara edota idatzi du *Kezko bola batek itoak birikak* (2020) nobela beltza Miel Anjel Elustondok.

Azkenik, eleberri beltzaren saiakera lanak direla eta, aipatu behar da euskaraz oso urriak direla eta gehienetan, eleberri beltza lantzen duten idazleek eurek idatzi izan dituztela. Horren erakusgarri dira Garateren *Atzerriko eta Euskal Herriko polizia eleberria* (2000) eta Alonsoren *Beltzaren koloreak* (2016) saiakera.

1.3. Euskal gatazka eta egungo eleberri beltza

Euskal gatazkaren inguruko literaturaren gaineko ikerketak ugariak izanagatik –gutxi batzuk aipatzearren, Egaña eta Zelaieta (2006) edota MHLI ikertaldeko ekarpen nabarmenak–, eta jadanik ETA osteko gatazkaren literaturaz hitz egiten hasiak garen honetan (Olaziregi 2020; Ayerbe 2020), deigarria da eleberri beltzean gatazka nola irudikatu den oso gutxi aztertu dela. Litekeena da, gatazka jorratu izan duten eleberri beltz gisakoak ez direla zinez eleberri beltzaren parametroetan neurtu eta, aldiz, izan liteke %100ean eleberri beltz izendatu izan diren liburuetan ez delako gatazka “bere horretan” jorratu.

Zalduak (2016: 135) iradokitakoari jarraiki, badirudi egungo eleberri beltzak “gaiari lehentxeago baino gogo handiagoz heltzeko prest dagoela ematen” duela eta ETaren desagerketak ahalbidetu egin duela gatazkaren agerpena euskal eleberri beltzean. Hala ematen dute aditzera, behintzat, Ladron Aranaren hainbat nobela mardulek, Irazisabalen nobela laburrak, protagonista bera duten Alonsoren azken lanek eta Edorta Jimenezen 2017ko azken eleberriak. Are, gatazkaren inguruko literaturak ETA osteko aroan izango

duen gorakada aintzat harturik, “gaiaren banalizatzearen eta *bestsellerizazioaren* ageriko arriskua” (Zaldua 2016: 134) ere aipatzen du idazleak eta gaineratzen du, “kontua larriago d[ela], euskal eleberri beltzaren alorrean” (Zaldua 2016: 135).

Hori horrela, ondorengo atalean azterkizun izango dugun corpus zehatza zehaztuko dugu eta azterketarako baliatuko dugun metodologia zehaztuko da. Izan ere, sakon ikertu nahi izan dugu Zalduaren baieztapena zertan oinarritzen den eta egungo euskal eleberri beltzean gatazka nola irudikatu den eta, finean, Zalduak aipatzen duen arrisku hori nola gauzatzen den zehazteko.

2. Corpusaren aukeraketa eta metodologia

Azterketarako corpusaren aukeraketa dela eta, hasteko Zalduak aipatzen dituen hiru liburuak zerrendatu ditugu: Iñaki Irasizabalen *Bizkartzainaren lehentasunak* (2013) eta Alberto Ladron Aranaren *Piztiaren begiak* (2012) eta *Harrian mezua* (2014).

Bestetik, harago joateko intentzioz eta protagonista ETAkide ohia zela jakinik, Jon Alonsoren *Zintzoen saldoan* (2012) eta *Hiri hondakin solidoak* (2015) eleberriak ere aztertu ditugu. Tamalez, ordea, eta lanaren mugak kontuan izanik, azken unean azken eleberri horren azterketa corpusetik atera dugu⁴. Izan ere, gatazkak ez du leku handirik hartzen eleberrian, “euskal gatazka” izendatuak behintzat. *Zintzoen saldoan* Alonsoren aurreko nobelan ez bezala, oraingoan ez dira hain ugariak iraganari buruz egindako iruzkinak eta nekez aurkitzen da gatazkaren inguruko gertakari edo hausnarketarik⁵.

Nobelen azterketa literarioa garatzeko, narratologiako elementu garrantzitsuenei – narratzailea; pertsonaiak; espazioa eta denbora– erreparatuko diogu batetik, eta bestelako interpretazio bideak irekitzeko, nobeletan jorratuko diren gatazkaren inguruko osagaiei eta eleberri beltzaren ezaugarriak nola garatzen diren zedarrituko ditugu. Azkenik, aipatu eleberrien azterketa kronologikoki antolatu dela.

⁴Edonola ere, bibliografiaren ondorengo eranskinean erantsi dugu *Hiri hondakin solidoak* azterketa xehea, Alonsoren eleberri beltzaren bilakaera ezagutzeko lagungarri izan daikelakoan.

⁵Era berean, eta gure asmoa hala bazen ere, kanpoan utzi behar izan dugu Edorta Jimenezen *Ostadarrak lurra ukitzen duen lekua* (2017), pandemiaren egoerak liburua eskuratzea eragotzi digun heinean. Beraz, aipaturiko bost eleberri beltzekin osatu dugu corpusa, lanaren baitan lau nobela bildu baditugu ere.

3. Eleberrien azterketa

3.1. Piztiaren begiak

Ladron Aranaren *Piztiaren begiak* (2011) eleberria ondoren bat egingo duten bi kontakizunez osatua dago. Batetik, Jon Iriarteren bizitza kontatzen da eta, bestetik, Xabier Betelu etakide ohiaren mendekua. Jonek emaztea eta alaba auto istripu batean galdu zituen 2001ean. Hamaika urte beranduago Jonek Polizia Nazional ohi Francisco Dasilvaren gutun bat jasotzen du ez zela istripua izan adieraziz. Albisteak bizitza irauli eta Dasilva eta bere familiaren heriotzekiko lotura zein den asmatzen saiatuko da. Ikerketan iraganeko kontu ilunak azaleratuko zaizkio protagonistari: emaztearen desleialtasunak, alabaren aitatasunari buruzko zalantzak... Azkenik, Xabier Betelu izango da egia osoa kontatuko diona. Hots, Jonen emazteak Dasilvarekin abentura bat izan eta haurdun geratu zela. Dena, gutunetik hasita, Dasilvari prestatutako mendeku bat izan dela jakinaraziko dio Xabierrek Joni eta ekintzen arrazoia iraganeko gertaera batekin lotuta dagoela: Xabier Ezkaba komandoko kidea zen eta Guardia Zibilak taldea desegin eta taldekideak atxilotu zituenean Dasilva zen operazioaren buru. Taldekideak espetxeratzean, Dasilvak Xabierren neskalgun eta komandokidea torturatu egin zuen eta handik bi astera bere buruaz beste egin zuen.

- Narratzailea eta pertsonaiak

Narratzailea orojakilea da baina, neurri handi batean elkarrizketa ugari eta biziak dira gertakarien berri ematen digutenak. Fokalizazioari dagokionez, bi plano nagusi daude eleberrian. Bata Jonen bizitzaren inguruan diharduena eta, bestea, Xabierren mendekuaren gainekoa. Hala ere, planoen artean bi kontakizunak bateratzen dituzten elementuak tartekatzen dira.

Eleberrian zehar pertsonaia asko ageri dira, baina jarraian soilik esanguratsuenei erreparatuko diegu.

-Jon Iriarte: Jonek 2001eko otsailaren 12an emazte Sandra eta alaba Irati ustezko auto istripu batean galdu zituen. Urte berean bere etxea sute batean erre eta, geroztik, burua ezin altxaturik bizirauten du. Langabea da eta “utzikeriaren poderioz etxea hondatzen ari zitzaien”(121)⁶. Bestalde, “azkenaldi hartan gero eta gehiago edaten ari zela

⁶*Piztiaren begiak* eleberriko aipuak 2012ko lehen ediziotik hartu dira.

ohartzen zen [...] nabarmena zen alkohola baliatzen zuela estutasuna baretzeko. Eta horrek beldurtzen zuen.” (65). Jonen irudia galtzaile batena da, Miren neskalagunari esker jarraitzen du aurrera, baina, era berean, beste norbaitek mantendua izan beharrak amorru ematen dio.

-Francisco Dasilva: egun Securcom enpresaren jabea eta Polizia Nazionaleko inspektore ohia, “Iruñeko Brigada Antiterroristako izar ohi bat” (130). Dasilva trajea, atzeraka orraztutako ilea eta kolonia oso garestiak eramaten dituen horietakoa da, baina bere ustez “bide hark kaka besterik ez zion eman: emazte mozkor bat, Securcom, gorbatak, urdangen irribarre erosiak, haiek bezain erosiak ziren politikarien bostekoak...”(143). Droga menpekotasun handia izateaz gain, betidanik trapu zikinetan ibilia izan da. Polizia zeneko garaian droga kopuru handi baten lapurretarekin lotu zuten eta, geroztik, han-hemenka diru xantaiak egiten ibili da isiltasunaren truke. Azkenik, pertsonaia hau fokalizatzen duen narratzailearen ahotsaz gain, bakarrizketa gisa Dasilvaren kontzientziak hitz egiten du, burmuinean duen bala batek rol hori betetzen duelarik⁷:“*Traidore zikin bat zela erran nizun garai hartan, baina ez zenidan kasurik egin*” (159). Eleberriarren amaieran Xabier Betelurekin tiroketa bat izanen du eta biak ala biak hil egingo dira.

-Xabier Betelu: etakide ohia da, Ezkaba Komandoan aritutakoa. Hala ere, “hirugarren mailako ekintzaile” (52) bezala definitzen du bere burua. “Talde armatuko kide izatea” (321) leporatuta, jarraian gertatu ziren Dasilvak neskalaguna torturatzea eta ondotik neskak bere buruaz beste egitea, eta momentu horretan hasi zen Xabier Dasilvaren mendekua prestatzen. Espetxealdia laburtzeko, leporatutako guztia onartu zuen eta erakundeak burututako ekintzen biktimei barkamena eskatu zien.

Tipo bakartiaren eta gogorraren irudiarekin batera, pertsonaia itxi bezala ageri da, bere ekintzak beti azkenera eramango dituenetakoa. Zalantza izpirik adierazi gabe eta plan horrek bere heriotza berekin dakarrela jakin arren.

⁷Nobelaren amaierako oharrean ondorengoa zehazten da: “Dasilvak buruan daraman bala ere ez da fikzioa: historian horrelako hainbat kasu egon dira” (315). Dena den, bala kontzientziaren ahots bihurtzearena bai dela lizentzia literarioa. Bestalde, balaren ahotsaren tonuak gogora ekar dezake Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993) eleberriko Carlosen Arratoiaren ahotsa.

- Denbora eta espazioa

Istoria Nafarroan kokatua dago, Iruñea eta Baztan inguruan. Orainaldiari dagozkion gertakizunek Iruñean dute leku eta iraganekoek, ordea, Nafarroako iparraldean.

Denborari dagokionez, kontakizuna ez da lineala eleberria analepsiz beterik dagoelako, nahiz eta ezaugarri horrek ez duen kronologia nagusiaren haria galtzea oztopatzen. Aitzitik, kontakizun nagusian narratzaileak isildutako datuak osatzen eta bilbea eraikitzen laguntzen dute. Era berean, plano ezberdinak tartekatzen diren arren, sarritan, bata bestearen arteko aldiberekotasuna dago.

Orainaldiko gertakizunak negutik udaberrira luzatzen badira ere, martxoko aste oso bat bihurtzen da ekintza nagusien denbora tarte esanguratsuena eta kapituluaren izenburuek ere denborari egiten diote men: “Iruñea, negua”; “Martxoak 8, osteguna”-tik “Martxoak 14, asteazkena”-rako tartean egun bakoitzeko atal bat eskaintzen du eta, azkenik, epilogo gisako “Astebete geroago” atalarekin amaitzen da nobela.

- Jorratutako gaiak

- Gatazkaren semantika

Hasiera batean eleberraren argumentuaren oinarrian Jon Iriarteren familiaren heriotzaren ikerketa dagoela dirudien arren, idazleak orduko giro soziopolitikoaren isla ere eskaintzen du. “Zeharka bederen, indarkeria politikoak ere bere parte izango du argumentuan” (Rojo, 2012). Arlo hau bereziki Dasilva eta Xabier Beteluren eskutik landu dela esan daiteke.

Honekin batera, irakurketa feminista kritiko bat ere gehitu genezake, izan ere, eleberrian agertzen diren emakumeen rola zein den aztertzen badugu, emazte, neskalagun, alaba, prostituta edota neskame izatera lerratzen direla ikusiko dugu. Salbuespen gisa, eta gehien jota, Xabierren neskalaguna har genezake aintzat, bikote ez ezik, etakide bezala ere agertzen delako. Halere, atxiloketa eta torturak jasandakoan, bera da egoerari aurre egin ezin dion bakarra eta buruz beste egiten duena. Badirudi “artean sineskorrago zaigula kultur jardunetan ETA kide eta polizia zigortzaileak gizon izatea, are, harrapari-ehizari eta eskrupulurik gabeak badira” (Esnaola 2012); Xabierrek pasarte honetan adierazi bezalaxe: “Gizonezkook ehiztari bat zeramaagu bihotzean [...] Harrapari bat” (28).

Esan bezala, egoera politikoaren inguruan hainbat zertzelada ematen dira. Hala nola, poliziaren ustelkeria, botere norgehiagoka, tortura eta espetxealdi luzeak, exilioa edota preso politikoek jasandako sakabanatzea. Xabierrek, esaterako, kondena lau espetxetan bete du, Soto del Real, Puerto, Alcalá Meco eta Langraizen. Jakina denez, azkeneko kartzelak etakidea bere ekintzez damutu izana-edo iradokitzen du eta birgizarteratzeko baldintzak onartu izana. Xabierren kide izan ziren askok ez zuten haren jarrera ulertu eta hori dela eta kartzelatik ateratzekoan ez zuen “aurrekurik” (51) eta “ongieterri ekitaldirik” izan (52). Halere, damutzea eta barkamena eskatzearen kontua Dasilva mendekatzeko tapaki bat besterik ez da izango eta espetxetik bueltan Iruñeako kaleetan barrena ibilitakoan, iraganeko Iruñea bat malenkoniaz eta nostalgiaz gogoratuko du: “Sonanbulu bat bezala sartu zen Jarautako karrikara. Kartelik ez, lelorik ez hormetan. Presoen aldeko banderatzok balkoi bakan batzuetan. Zuriak, amore ematearen kolorea. Ikusezin bihurtu gaitiztek” (50).

Bestetik, gatazkako iraganeko kontuak jorratzean, Dasilva inspektorearen gatazkarekiko ikuspegia ere eskaintzen da: “Nafarroan bizitzea ere latza zen: atentatuen beldurra, jendearen uzurtasuna, inorekin fidatu ezina... Dasilvak *gerra* hitza erabiltzen zuen egoera deskribatzeko: ‘Batailarik gabeko gatazka luze eta zikin bat, jende gehienak gerratzat jotzen ez duena’” (76). Ondotik, bere burua biktima gisa ikusten duela aitortzen zaigu, ez biktimario bezala, baina ez ausaz, eleberrian bere biktimario izaera nabarmenduko da; “Gizon hori psikopata hutsa da. Munstro bat [...] Galdeketak zituen espezialitatea. Haren eskuetatik igarotakoek izugarrikeriak kontatzen zituzten... Torturatzaila zen” (201).

Azkenik, eleberriaren amaieran Ladron Aranak bestelako ikuspegi ere bat eskaintzen du. Izan ere, nobelako gertakizunak argitzean “Nafarroako egunkari dekanok” ez du zalantzarik egingo ETaren mamua haizatu eta ETaren balizko itzuleraren berriak zabaltzeko: “Itzuli da ETA? [...] ETako kide batek Nafarroako enpresari bat hil ostean, adituek...” (313). Dena den, kontua bere horretan utzi eta eleberria amaitu egiten da.

- Gatazkaren elementuak eleberri beltzaren klabeetan

Nobelan zehar eleberri beltzean ezinbestekoak diren ezaugarriak aurki daitezke. Kasu honetan esanguratsuen polizia eta handi-mandien ustelkeria agerraraztea litzateke, Dasilvarengan gorpuztua beti ere. Polizia Nazionaleko inspektore ohia eta Iruñeako

Brigada Antiterroristakoa lehen eta Aseguru enpresa pribatu baten jabe orain. “Legearen alderdian” ibilitako gizona izan da beti eta horren babespean zernahi egin du: “bere bizitzan hamaika delitu egin ditu eta beti onik atera da (...) Jende ahaltso andana batek mesedeak zor dizkio” (235); “Sistema osoaren babesa zuten. Haren zeregina sakratua zen: demokrazia babesten ari ziren. Ukaezinak ziren. Nahi zutena egin zezaketen: jendea atxilotu, torturatu, hil... Inork ez zien trabarik jarriko, inork ez zituen zigortuko”(206).

Ildo honi jarraikiz, polizia eta, orokorrean, boterea dutenen trapu zikinen bestelako hainbat salaketa egiten dira: polizia eta drogaren arteko harremana, enpresariei eginiko diru-xantaiak, traizioak eta mehatxuak, polizien bitartekari ez oso ortodoxoak edota autoritateen arteko lehia eta norgehiagoka, besteren artean. Azken hori Guardia Zibil batek eginiko iruzkin batekin ematen da aditzera: “lasai, txapelgorri horiek pistolak tiro nondik egiten duen ere ez dakite”(275).

Azkenik, komenigarria litzateke aipatzea pertsonaia eredu hauen guztien infrentzuan Jon Iriarte legokeela. Protagonistak berak esaten duen esaldi batekin laburbil liteke alderdi hau: “langabe izateak aldatu egiten dizu ikusmoldea, sentiberago bihurtzen zaitu porrotarekiko” (111). Aurreko ideiarekin indargarri gisa, hona hemen Rojoren (2012) hitzak: “etsipen giroa da beste ezaugarri bat, pertsonaia nagusia zinismo eszeptikoan murgildurik agertzen baitzaigu, gizartean batere usterik ez duelarik”

3.2. Bizkartzainaren lehentasunak

Iñaki Irasizabalek 2013an kaleratutako *Bizkartzainaren lehentasunak* eleberri beltz laburra 2011. urteko ETAREN su-etenaren iragarpenaren ingurumarietan lerrokatzen da. Udan kokatzen da istorioa eta garai hartako giro politikoa baliatuz, argumentua honela eraikitzen da: dagoeneko ETAK erabakita du armak behin betiko uztea baina oraindik ez du horren berri ofizialik eman eta, bestetik, erakundearen zuzendaritzan poliziak infiltraturiko satorra agerian geratu da. Erkiaga Barne Sailburua beldur da, erakunde armatuaren baitan desadostasunak daudenez, norbaitek satorrari eraso egingo ote dion eta ondorioz, bake prozesua hankaz gora jarriko ote duten –Etxezarraga du jopuntuan, erakundearen erabakiarekin ados ez dagoen disidentea–. Beraz, Erkiagak Martin Goena protagonista kontratatuko du *Oier* deituriko satorraren bizkartzain lanak egiteko.

Ezustean, ordea, satorra hil egingo dute eta hilketaren bertsio ofizialean dauden hutsuneak aintzat izanik, Martinek, Barney lagunarekin, bere kabuz ekingo dio kasua ikertzeari. Ikerketan iraganeko mamuak gerturatuko zaizkio protagonistari: erakundean pasatako urteak, kartzelan egondakoa, arrebaren heriotzak eragin zion trauma... Amaieran, irakurlea jabetuko da hasierako satorraren hilketa agindua Erkiaga Barne sailburuak eman zuela bake prozesua ez oztopatzeko eta hilketa burutu zuen Elias ertzainak berak hilko du amaiera-amaieran Erkiaga Barne Sailburua. Bake prozesuak aurrera jarraituko du, honenbestez, baina ustelkeriaren zantzuek hor jarraitzen dute.

- Narratzailea eta pertsonaiak

Narratzailea 3. pertsonako narratzaile extradiegetikoa da eta fokalizatu nagusia Martin Goena protagonista da. Narratzailea ez da iruzkingilea. Era berean, kontakizunak ez du egoera soziopolitikoaren edota gizartearen gainean hausnartzeko digresiorik baliatzen. Lehenetasuna gertaerek dute eta pertsonaiek ekintzen bidez azaleratzen dira eleberrian zehar jorratzen diren gaiak edota hausnarketarako bideak, “kritika [...] zeharka egiten da, batzuetan modu sotilean eta beste batzuetan argiago” (Gurrutxaga, 2013).

- Martin Goena: gaztetan politikan sartu eta 20 urterekin erakundearentzat “lan txiki bat”egin (10)⁸ eta erakundeko kide bihurtu zen. Espetxean zegoela arrebaren heriotzaren berri izango du, bomba bat manipulatzeko ari zela hil zena, eta kolpe latz horren ondorioz bere iragana atzean utziko du: “zerbait hautsi zitzaion barruan, batez ere buru barruan, eta gauza arraroak egiten hasi zen [...] Ez zuen agindurik onartzen, ez funtzionarioenak, ez erakundearenak. Ez zen inorentzat propaganda ona eta kartzelatik ateratzea erabaki zuten, birgizarteratzea” (9). Behin kalean, EEko Erkiaga politikariarentzat bizkartzain lanak egingo ditu, perfil ezin hobea baitu horretarako –“Martin handia zen, indartsua, azkarra ematen zuen eta pistola erabiltzen bazekien” (10) – eta etakide izatetik “diru zakuak zaintzen bukatu zuen” (10). Bere zaintzapean zen Oierren hilketaren ostean, bertsio ofiziala zalantzan jarriko du eta, poliziarengandik aldenduz, kasua bere kabuz argitzen saiatuko da. Ikerketa aurrera doan heinean eta gauzak korapilatzen edo arazoak sortzen doazen heinean Martinek geroz eta antza handiagoa izango du “hardboiled” estiloko detektibeekin. Horrela, bere buruan arriskuan ikusten duenean ez du zalantzarik

⁸Azterketa honetarako baliatu diren aipuak Iñaki Irazisabalen *Bizkartzainaren lehenetasunak* liburuaren Elkar argitaletxeko 2013ko lehen ediziotik hartu dira.

egingo Etxezarraga hiltzeko: “Albotik erori zitzaionaren itzala ikusi zuen berriro gainera zetorkiola, eta ezer pentsatu gabe pistola atera eta hiru tiro eman zizkion” (98).

Bestalde, Martinen alaba ere aipatu behar da. Bilduko zinegotzia da eta Erkiagak zein poliziak Martin presionatzeko erabiliko dituzten xantaien pagaburu izango da.

- Barney: autoak “tuneatzeko” tailer bat dauka, droga saltzailea da eta Martini laguntzearen atxilotu eta kartzelan bukatuko du. Bera da Martinen konplizea eta honen ekintza arbuiagarriak estaltzen lagunduko duena, hala nola, Martinek Elias jipoitzeko tailerra uzten dionean: “Barneyk, elkarrekin pare bat kopa hartzen zituzten bakoitzean oroitzen zion bezala, edozer gauza egingo luke lagunagatik” (23).

- Erkiaga: argumentuaren eraikuntzan berebiziko garrantzia duen beste pertsonaia da Erkiaga. Frankismo garaian ETAn ibilia da, ondoren EEko kide bilakatu eta “eskuin muturraren mehatxuek” (25) behartuta, bizkartzain gisa Martin kontratuko du: “Ez zen fidatzen polizia-indarrekin bizkarra zaintzeko eta bazuen Martin gaztearen berri” (27). Egun, Barne sailburua da eta berriro joko du Martinengana. Edonola ere, pertsonaia anbigua da Erkiaga: berea izango da satorra babesteko erabakia eta amaiera aldera jakingo da, hain zuzen, berak hiltzen duela satorra.

- Elias: Erkiagaren ezkutari fidela den ertzaina da. Pertsonaia enigmatikoa, aginduak betetzera ohitua dagoena. Ezusteek ere zeresan handia dute bere ekintzetan eta horrela, azkenean bera izango da Erkiaga traizionatu eta hilko duena. Eleberriaren amaieran, gainera, ertzain buru gisa agertuko zaigu eta nolabait aditzera ematen da, Elias kargu handiko norbait bihurtu dela, aginduak betetzetik aginduak ematera pasa den norbait, alegia.

- Oier eta Etxezarraga: Oier satorraren hilketak ematen dio hasiera eleberriari eta aditzera ematen da ertzaina zela, bere neskalaguna bezala. ETAn barruraino sartutako satorra izanik, zenbait etakidek hil egin nahi dute baina erakundearen ildo nagusia hilketaren aurka agertuko da, beti ere bake-prozesua ez oztopatzearen. Hala, Etxezarragak ez du erakundearen erabaki hori onartuko, eta eginbidean den bake prozesua abiatzearen aldekoa ere ez denez, erakundetik aldendu eta bere kabuz ekintzak egiten dituen izango da. Honela deskribatzen du Erkiagak: “alde bietan zeudek prozesuarekin konforme ez direnak. Baina Etxezarraga da gehien arduratzen gaituena. Taldetxo bat omen zeukak, eta zerbait egiten ahalegindu daitezkek” (12).

- Espazioa eta denbora

Argumentuaren espazioari dagokionez, Bilbo eta aldirietan jazotzen dira gertakari nagusiak. Denborari dela eta, 2011ko ekainaren lehen egunetara mugatzen da istorioa. Dena den, lehenagoko hilabeteetako gertakarien berri ere emango zaigu analepsien bidez, bereziki Oier zaintzeko Martinen bizkartzain lanei loturikoa. Beraz, ondorioztatu daiteke nobelako gertakari nagusiak 2011ko urriaren 20ko ETAREN behin betiko su-etenaren iragarpena baino hilabete batzuk lehenago kokatzen dela. Hori horrela, tentsioz beteriko garaiko egoera politikoa eleberriaren gai nagusi nola bilakatzen den ikusi dezakegu eta istorio osoan zehar bake prozesuaren kinka gailenduko da, apurtuko ala ez den.

- Jorratutako gaiak

- Gatazkaren semantika

Bake prozesua abiatzeko arrakasta edo porrota nobelako leitmotiva den heinean, euskal gatazkaren iruditegiak ezinbesteko garrantzia du. “Gure gizartean ongi ezagutzen ditugun osagaiak dira, kontakizun historiko gisa koka daiteke lehen kolpean begiratuta” (Zaldua, 2013). Hala ere, ikus dezakegunez, ETA ez da inoiz bere horretan aipatzen eta ETA izendatzeko “erakundea” eufemismoa soilik erabiltzen da, agian gertakarien atzean fikzioa dagoela nabarmentzeko. Era berean, “eskuin muturraren mehatxuak” soilik aipatzen dira 80ko hamarkadako gertakari nahasgarriak adierazteko. Euskal politikagintzan esanguratsuak izan diren beste hainbat gertakari ere fikzio gai bihurtzen dira. Adibidez, Frankismo garaiko ETApn-n militatzen EE alderdi politikoan aritzera eta, azkenik, PSEeko Barne Sailburu bihurtzen den Erkiagaren kasua. Era berean, ETAREN behin betiko su-etenaren aurka agertzen den Etxezagarra etakidea legoke, erakundearen erabakiaren aurka altxatzen den disidentearen eta bere jarraitzaileen kasua.

Bestetik, deigarria da Martin protagonistaren bilakaera ere, etakide ohi eta preso ohi izatetik, arrebaren heriotzaren ondorioz bere printzipioak atzean utzi eta bizkartzain bilakatzen baita. Gainera, Bilduko zinegotzia den alaba du. Baita beste pertsonaia nagusien eraldaketa ere: Erkiaga etakide izatetik hilketak burutuko dituen Barne Sailburu bihurtzeraino; Elias Erkiagaren aginduak betetzetik Erkiaga bera hiltzera pasako da; Etxezarragaren bilakaera...

Gatazkak lohituriko gizarteetan komunikabideek ere parte-hartze esanguratsua izaten dute eta *Bizkartzainaren lehentasunak* eleberrian ere islatzen da “komunikabideen gatazka” dei zitekeena: alde batean, *Gara* eta *Berria* egunkariak agertzen dira eta, bestean, *El Mundo*. *Garak* jasoko du Oierren hilketaren berri emateko dei anonimoa eta *Berria* egunkaria, aldiz, informazio osatuaren, kontrastatuaren eta objektibotasunaren erakusle gisa agertzen da:

— [Deia] Egin badu jakin dezaten izan da, baina isilean daukaten bake-prozesua ez oztopatzeko. Kazetari bat aurkitu eta...

— Kazetari bat ezagutzen dut.

— A, bai? eta fidatzekoa al da?

— Erabat. *Berria*-n egiten du lan Olgak.” (80)

El Mundoren bitartez, aldiz, filtrazioaren gaia jorratzen da eta “barkamena eskatzearen” kontu ideologiko-politiko ere islatzen da eleberrian:

— Julio Ruiz naiz, *El Mundo*-ko kazetaria. Bihar informazio bat aterako dugu egunkarian: orain astebete Bilboko plaza batean hildako gaztea polizia omen zen eta zu omen zinen haren bizkartzaina. Adierazpenik edo egin nahi duzu? [...] Gure informazio-iturriak erabateko sinesgarritasuna du. Zure iragana ere ezagutzen dugu, barkamenik eskatu al duzu inoiz?

— Nola lortu duzu nire telefono zenbakia?

— Kazetaria naiz. Zerbait esateko duten pertsonen telefono zenbakiak lortzea da gure zereginetako bat.” (58-59).

- Gatazkaren elementuak eleberri beltzaren klabeetan

Bizkartzainaren lehentasunak eleberrian, nobela poliziakoetan ezinbestekoak izaten diren elementuak agertzen dira eta, sarritan, gatazkaren gertakari eta ikuspegiarekin uztartzen dira elementuok. Nobelan ez dago *ongiaren* eta *gaizkiaren* arteko bereizketa gardenik.

Adibidez, poliziaren eta politikaren ustelkeria da eleberrian salatzen den gaietako bat. Erkiaga pertsonaia, lehen aipaturiko bilakaerari jarraituz, poliziaren mesfidati izatetik hiltzaile krudel izatera eta poliziak bere aginduetara erabiliko dituen eskrupulu gabeko agintari gisa agertzen da. Gainera, Martinek Erkiaga Oierren hilketaren erantzule dela jakiten duenean, Erkiagak xantaia egingo dio Martini bere isiltasuna erosteko, alabaren inguruko ondorengo informazioa baliatuz:

Alaba aipatu duk. Igor Rios Albeniz; ezaguna egiten zaik izena? [...] Orain lau urte, Urrezieta komandoa erortzean, ihesi irten beharra izan zian eta hire alabak bere aita ordearen etxabe batean gaua pasatzen utzi zioan [...] galdekatzen baditek auskalo zer gehiago aitortu lezakeen. Badakik galdeketak nolakoak diren” (112).

Pasarte horren atzean iradokitzen dena izugarria litzateke. Izan ere, irudi luke agintari politikoak kontrolpean duen delitu baten gaineko informazioa nahierara erabil dezakeela, bai komunikabideetara filtratu eta bazterrak nahasteko, bai xantaia egiteko, edota baita informazio hori gordetzeko ere, amaieran Eliasek egingo duen bezala. Informazioa ere boterea da, inondik ere.

Baina polizia eta politikarien ustelkeria ez da nobelan salatzen den ustelkeria eta traizio kasu bakarra. Lehen aipaturiko Etxezagarraren kasuan ere, erakundea traizionatu eta bere kabuz hartuko ditu erabakiak: “Gizonezko batek atentatuaren erantzukizuna bere gain hartzen zuen erakundearen izenean” (77). Horrenbestez, erakundearen baitako talkak, barne gatazkak eta, azken batean, erakundearen barruko botere borroka irudikatuz.

Azkenik, eleberri beltzetan maiz agertzen den *lumpen* edota legez kanpoko giroa dela eta, kasu honetan Barney pertsonaiaren bidez hurbiltzen da, apur bat bederen, drogaren ingurunera: “gamelu lana egiten zuen, bezero gutxi eta hautatuentzat [...]. Martinek babestu baten bitartez ezagutu zuen aspaldi. Babestua politikoa zen eta Barneyren bezero ona” (25). Bestalde, protagonistak Elias torturatzen duen garajeko eszena tarantinotarra ere Barneyren eskutik dator.

3.3. Harrian mezua

Alberto Ladron Aranaren *Harrian mezua* (2014) eleberrian bi anaien arteko gatazken bidez ETaren eta zenbait indar polizialen arteko gatazka irudikatzen da, betiere mendekuan oinarrituz. Protagonistetako bat Patxi Irujo da, 2003. urtean CNIK (Inteligentzia Zentro Nazionalak) kontratatu eta ETAn sator gisa aritzeko Guardia Zibileko Alvira komandanteak prestatu duen morroia. Laster sortuko dira berarekiko mesfidantzak erakundearen barruan ordea, Patxi infiltratuta zegoen bi komando atzeman baina Patxiri ezer gertatzen ez zaionean, hain zuen. Gauzak horrela, Alvirari bere heriotza *simulatzeko* eskatzen dio, hilda egonez gero, gauzak errazagoak izango

direlakoan eta CNI-ri ETAn satorrak sartzeko plan berri bat proposatuko dio, *Putetxe proiektua* deiturikoa. Plana honetan datza: Nafarroan ETAK presentzia handien zeukan eskualdeetan lokal batzuk aukeratu dituzte, *Paradise* eta *Kairo* klubak. Horrela, prostitutak bezeroei informazioa atera ziezaieten prestatuko dituzte eta Patxiren lana putetxeetako jabeen eta Alviraren arteko bitartekari izatea izango da; baina, berehala, jabeek bestelako lanak bilatuko dizkiote Patxiri, droga trafikoa, prostituzio sareak, etab.

Edonola ere, kontakizuneko protagonista nagusia Ander Irujo da, Patxiren anaia. Etakide izateagatik kartzelan sartu zuten 2011an eta bera kartzelan den bitartean kanpoan jazoriko gertakizun jakinek bere konbikzioak baztertzera eramango du. Izan ere, Ander espetxeraturik dagoela Patxi anaiak abentura bat izango du Miriamekin, Anderren emaztearekin, eta haurdun geldituko da. Hala, Patxik ordura arteko lanak uzteko nahia adierazten duenean, Alvirak Miriam gaindosiz hilaraziko du, Patxiri eskarmentu bat ematearren.

Hiru urte beranduago, Miriami egindakoa mendekatzearen Patxik putetxeetako hiru jabeak gasolinazko xiringa bat ziztatuz hilko ditu eta kasua Leire Asiain Nafarroako Foruzaingoko inspektorearen esku geldituko da. Asiainek eta bere taldeak hildakoek prostituzio-sare eta drogarekin lotutako kontuekin zerikusia dutela ondorioztatuko dute. Handik aste batzuetara, Ander Irujo etakide ohiak bere alaba Ainhoaren desagertzea salatuko du eta Asiainek neskaren bahiketa eta hilketen kasuaren artean loturak egon daitezkeenaren susmoa izango du, Ainhua bahitu zuten lekuan ere plastikozko xiringa bat baitzegoen. Ikerketak aurrera egin ahala, Foruzaingoen eta Guardia Zibilaren artean talkak sortuko dira, Asiain kasutik baztertuko dute eta ikerketa Guardia Zibilaren esku geldituko da, Alvira komandantearen ardurapean, hain zuzen. Bestalde, Leirek eta Anderrek harremana estutuko dute Ainhua aurkitzeko nahiak bultzatuta eta euren kabuz arituko dira bilaketan. Nobelaren bukaeran gertakari horien guztien atzean Patxi dagoela argituko dute eta honek iraganean gertatutakoa aitortuko die, baita Ainhua zinez bere alaba dela ere, eta ez Anderrena. Azkenik, Alvirak Patxiren mendekua ikusirik, iraganarekin lotutako froga guztiak ezabatu nahi izango ditu, Ainhua barne. Horregatik, amaieran, Patxik anaiaren laguntzaz komandantea hiltzea lortuko du, hilketa Asiaini egotzirik eta Anderrek espetxean bukatuko duelarik.

- Narratzailea eta pertsonaiak

Narratzailea extradiegetikoa eta heterodiegetikoa da eta 3. pertsonan kontaktzen ditu gertakariak. Bestalde, narratzaile orojakilea izanik, ez da iritzi-emailea. Nobelaren abiapuntua bi planotan bereizten da: batetik, Leire Asiain inspektorea ikertzen ari den hilketen planoak ematen dio hasiera nobelari eta, bestetik, Anderren istorioaren planoak kokatzen da. Eta Anderren planoak paraleloki kontatu arren, apurka-apurka bi planoak hurbiltzen joango dira eta une batetik aurrera, bi planoek bat egin eta kontakizun berean bilduko dira. Beraz, hasiera batean fokalizazioa ere bikoitza da, fokua bi pertsonaiengan bideratuko baita, baina bi planoek bat egitean, Anderren planoak lehenetsiko da.

Honakoak dira argumentuaren eraiketan kontuan hartu beharreko pertsonaia esanguratsuenak:

-Leire Asiain: Nobelaren protagonistetako bat da. Nafarroako Foruzaingoko inspektorea da eta aurrenekoz *Harrian mezua* nobelan agertzen bada ere, Ladron Aranaren hainbat nobeletako ikertzailea izango da⁹. Kontakizun honetan izaera zaurgarridun emakume gisa aurkezten zaigu, autoestimu arazoak ditu gaztetako traumak ondorioz, bereziki apaiz irakaslearen jazarpenei ihes egiteko elikadura arazoak izan zituenetik (187-188). Emakumezko Foruzaingoko inspektore izateak ere eragingo dio oztoporik, gizonezko lankideen mespretxua adibidez, eta bikotekiderik ezagutzen ez zaionez, “Lanean, zurrumuruak zebiltzan lesbiana zela” (190)¹⁰. Edonola ere, une oro irmotasuna adierazten saiatuko da eta ikerketatik baztertzen dutenen ere, Anderren dei batek “betiko aldatu zion bizitza” (125), ez du amorrik emango eta bere kabuz arituko da ikerketan. Horrenbestez, bide “legaletatik” urruntzen hasiko da, Ander etakide ohia izango baitu laguntzaile. Azkenik, nortasun gogorreko emakumea dela ere nabari da, amorrubeterik eta zalantzarik egin gabe, Alvira Guardia Zibileko komandantea jotzera ere iritsiko da: “Atzeranzko kolpe batekin, Alviraren sudurra jo zuen ukondoaz [...] Asiain askatu eta, bere indar guztiekin, ostikoa jo zion hankatardean Alvirari” (178).

⁹Halaber, *Gezurren basoa* (2016), *Jainkoen zigorra* (2017) eta *Film zaharren Klubean* (2018) nobeletan ere agertzen da eta beraz, pertsonaia horren bilakaerak azterkizun dugun eleberria gainditu egiten du, Asiainen “bizitzak” jarraipena izango baitu ondotik etorriko diren gainerako nobelatan.

¹⁰2011ko *Harrian mezua* liburuko aipu guztiak 2017ko urriko 4. ediziotik hartu dira.

-Ander Irujo: etakide ohia, lau urte sakabanaturik espetxez espetxe ibilitakoa. Komandokideak atxilotutakoan tortura gogorak jasan behar izan zituzten guztiek, Anderrek izan ezik, eta ondorioz poliziarri laguntza eman ziolako ustea zabaldu zen: “Taldeko beste hirurek tortura latzak jaso zituzten. Haietako bat ospitalera eraman zuten hil-hurren. Ni, ordea, ia ez ninduten ukitu [...] Zurrumurrua ibili zen poliziarekin kolaboratu nuela” (205). Espetxean dela bere emaztea gaindosiz hilik agertzen da 2011ean, eta kartzelatik ateratakoan, alaba galtzearen beldur, militantzia urteak atzean uzten ditu. Esan bezala, alaba desagertzean Leire Asiainekin hasiko da bere kabuz ikertzen eta harreman estuago bat sortuko dute nahiz eta ondotik mendeku nahiak itsuturiko traizioa etorriko den, azkenean bere ekintzak aitortu –eta ondorioz Leire askatu– eta berriro espetxean amaituko du Anderrek.

-Patxi Irujo: Anderren anaia da. CNik kontratatu zuen ETAn sator gisa aritzeko: “—Egia duk hori? Sator puta bat haiz? / —*Inteligentziako agentea*, axola ez bazaik” (271). Alvira arduratu zen hura *entrenatzeaz* eta Donostia komandoa eta Nafarroako Carlos Akerretaren taldea atzeman ostean, sator denaren zurrumurruek zabaldu eta ETaren errepresalien beldur (277), Alvirari bere heriotza simula zezan eskatu zion. Harrez geroztik, Nafarroako *Kairo* eta *Paradise* klubetan batetik bestera droga garraio lanetan murgiltzen da eta lana utzi nahi duenean, klubetako jabeekin arazo larriak sortuko dira.

Izan ere, Ander kartzelan dagoela, Patxik abentura bat izaten du Anderren neskalagun Miriamekin eta Ainhoa alaba izango da abentura horren ondorio zuzena. Miriam, ordea, bat-batean hilik agertzen da eta hiru urte beranduago, 2014ean, Patxik *deskubrituko* du egiazki bere sozioek hil dutela Miriam. Era honetan, hura mendekatzeko hirurak gasolinazko xiringa batez ziztaturik akabatuko ditu.

- Alvira komandantea: Guardia Zibileko komandantea da. Aipatu bezala, iraganean Patxi ETAn sator gisa sartzeko prestatu zuen eta bere heriotza prestatzen ere lagundu zuen. Zutarrietako hilketen eta Ainhoaren kasua Foruzaingoari ebatsi eta Guardia Zibilaren esku jartzearen erantzulea da; izan ere, gertakari guztien atzean dagoenez eta egia jakiteak bere omena kaltetu dezakeela ikusirik, edozer gauza egingo du froga guztiak desagerraraztearren: “—Orain badakizu zer duen Alvirak ezkutatzeko. Eta hori hasiera beretik ez da [...] Garbi dago zergatik kendu zizuten kasua” (264). Gainera, bertsio ofizialak ere unean-unean eraikitzen dituela azpimarratzen da, betiere bere inozentzia azaleratzeko edo, bestela esanda, bere erruduntasuna ezkutatzeko: “—Bi

pertsona hilko ditu bertsio bat mantentzearren? / —Psikopata alu bat da Alvira. Eta asko du ezkutatzeko” (263). Amaieran, bi anaiak jarriko dioten tranpan eroriko da eta Patxi izango da bera hilko duena.

- Denbora eta espazioa

Gertakariak Nafarroan dute leku eta iraupenari dagokionez, 2014ko otsailetik irailera hedatzen dira. Nobela ere atalka eta kronologikoki antolatuta dago: lehenengo atala (otsailaren 2tik 7ra), bigarren atala (ekainetik uztaileira) eta epilogoia (iraila). Gainera, kapitulu bakoitza azpiataletan banatuta dago, bakoitza hilabeteko egun bat delarik. Lehenengo kapituluak Leire Asiainek kasua hartu eta ikertzen hasten deneko garaiari egiten dio erreferentzia eta bigarrenak, aldiz, baja hartu ostean Ander Irujorekin batera bere kabuz ikertzen hasiko denari, Asiainen iraganera eginiko analepsi batekin hasten dena. Azkenik, epilogoari dagokionez, aurreko atalen artean egin bezala, elipsi bat egiten du uztailetik irailera igaroz eta bertan pertsonaien bukaerako egoera zein den aurkezten da, nagusiki Anderren familiari eta Leireri loturik.

Dena den, gertaerak 2014an kokatu arren, iraganak ere badu bere garrantzia kontakizunean eta hara hor, Patxi ETAko sator izanik atzemandako komandoen 2003 eta 2004ko urteak edota Miriam gaindosiz hila den 2011ko urtea, ETAREN bilakaeran ere historikoa izan zen urtea.

- Jorrotutako gaiak

- Gatazkaren semantika

Eleberrian zehar jorrotzen den gai nagusietariko bat “ETAREN kontrako borroka zikina” da (Artola: 2014). *Harrian mezua* nobelan gaia familia abertzaleko morroi baten eta Guardia Zibileko komandante baten harremanaren eskutik bideratzen da, bi anaien arteko gatazkak ere zeresana izango duelarik. ETAko komandoei eginiko segadak, torturak eta hilketak ETAREN jazarpenarekin nahasten dira, ETAkoen errepresalien beldur bere heriotza simulatuko baitu Patxi. Beraz, sarritan gerra bat bezala irudikatzen dira iraganeko urte nahasiak, baina bestetik, ezin errebisionismo aurkera ere baztertu egiten da nobelan, Guardia Zibila tartean izanik, gertaerak argitzea baino garrantzitsuagoa bilakatzen baita gauzak bere horretan uztea, edota bestela, gauzak aldatzea bertsio ofizialera egokitzeko moduan.

Bestalde, eleberri beltzaren ezaugarri izanagatik, hilketen gehiegizko biolentzia zantzuek eta bestelako xehetasunek ere gainerako irakurketa aukerak eskaintzen dituzte. Izan ere, terrorismoaz eta anti-terrorismoaz gain, prostituzio eta droga-sareen arteko lotura ere salatzen da nobelan. Adibidez, Guardia Zibileko komandantea legoke guztiaren atzean, gurean behin baino gehiagotan lotu izan diren elementuak ere nobelan lotuz eta zenbait polizik ingurune batzuetan drogarekin izaniko jokaera iradokiz.

Poliziaren errepresentazioa da nobelako beste berezitasun bat. Nafarroan atzeman daitekeen polizia-egoera islatzen da, nolabait. Nobela osoan zehar Foruzaingoaren eta Guardia Zibilaren arteko lehia eta norgehiagokaren inguruko zertzeladak ageri dira, Foruzainen elkarrizketen bidez aditzera ematen direnak: “Tira, putakeria bat da haiekin [GZarekin] lan egitea –onartu zuen Alberrok–. Arzoz elkarlana gora eta elkarlana behera dabilkigu, baina ikusi behar zenuke haren aurpegia txapelokerrekin biltzen denean” (232). Ez alferrik, Guardia Zibila Alvira komandantearen bidez irudikatzen da eta agerian geratuko dira bere *praxis*aren ezaugarriak: ustelkeria, azpijokoak, manipulazioak, hilketak, botere gosea, xantaiak... Bestalde, Anderren alabaren bahiketa ikertzerakoan ere, Foruzaingoak gogoraraziko du:

—ETAko kide ohi baten alaba izanik, zenbaitek zalantzan jarri dute Guardia Zibilaren gogoia kasu hau argitzeko.

—Asmo txarreko iruzkin horiek ez dute gure arretarik merezi. Kasu guztiak berdinak dira guretzat, eta interes berdinez ikertzen ditugu. Ainhua Irujoren bahiketa krimen guztiak bezainbesteko arduraz hartuko dugu (184).

Nabari daitekeenez, poliziaren baitan ere hierarkiak daudela iradokitzen da eta Guardia Zibila izango da indar polizialen *ranking*-ean azpi-azpiko postuan kokatuko dena, euren bidegabekeriengatik. Horren erakusle da Guardia Zibilak ikerketa bere gisa argitzeko, edo Foruzaingoei kasuko elementuak ezkutatzeko duen tema: “Guardia Zibilak froga garrantzitsuak ezkutatu dizkizue” (254).

Nahiz eta komunikabideak nobelan gutxi aipatu, gertakarien bertsio ofiziala eta egiaren arteko ohiko dikotomia horretan paper nabarmena dutela iradokitzen da. Lehen aipaturiko Guardia Zibilaren kasuan informazio filtratze eta ezkutatzeen berri ematen da, gehienetan kasua argitzeko asmorik eza eta ustelkeria islatuz. Bestetik, nobelako pasarte batean esplizituki aipatzen da komunikabideen erabilera edota komunikabideek gatazkaren esparruan duten garrantzia. Horrela, Leire Asiain eta Ander beren kabuz

ikertzen hasten direnean komunikabideetara jotzea erabakiko dute, baina berehala egingo dute atzera Anderren iragana kontuan izanik:

—Laguntza eskatuko diegu komunikabideei [...] Espero dezagun Ainhoa laster aurkitzea, baina ez legoke gaizki familiaren bozeramaile bat aukeratzea kazetariekin hitz egiteko.

—Beharrezkoa bada, nik neuk hitz egingen dut haiekin.

Asiainek burua astindu zuen [...] Anderrek ulertu zuen.

—Nire militantziak ez du asko lagunduko, ezta? (157)

Aurreko ideiarenean indargarri gisa, ondorengo pasarteak komunikabideek zer nolako indar eta boterea duten azpimarratze du eta komunikabideen edo ikuspuntuaren arteko gatazka ere ematen du aditzera: “—Estatuko komunikabideetan aita ETako kide izateari ematen diote garrantzia [...] Eta abertzaleek eskuin muturra edo estatu terrorismoa ikusten dute honen atzean. Erotzeko modukoa da.” (165)

- Gatazkaren elementuak eleberri beltzaren klabeetan

Eleberri beltzean ohikoa den bezala, kasu honetan ere ustelkeriaren isla nagusienetariko bat polizia izango da, baina esparru honetan ere, aurretik esan dugun legez, ezberdintasunak egongo dira polizien artean. *Ongiaren* eta *gaizkiaren* arteko talka garbia ikus daiteke pertsonaien artean, *onen* artean foruzainak leudeke –protagonista nagusia Foruzainaren inspektorea izanik– eta *gaiztoen* artean, berriz, Guardia Zibila. Hala ere, Leire Asiain inspektorearen irudia kontuan harturik, *Harrian mezua*, eleberri beltzetik baino, poliziotik gertuago egon litekeela pentsa genezake (polizia, eleberriaren hasieran bide legalatik jotzearen alde eta indarkeria baliatzearen kontrako); baina, pixkanaka “hardboiled” estiloko ikerlariarekin bat egiten duten ezaugarriak azaleratzen joango dira. Hala nola, lankideek harekiko duten lesbianatasun presuntzioa mutilagunik ez izateagatik, Guardia Zibil bat jipoitzera iritsiko da.... “Emakume honek gehienetan gizonezkoen esparrua izan den poliziarren barruan mugitu behar du, eta batzuetan eragozpenei aurre egin beharko die bere kondizioa dela-eta” (Rojo, 2014). Beraz, Leire Asiain pertsonaia anbiguoa dela esan daiteke, emakume izateagatik jazarria izan den pertsonaia, baina, era berean, “hardboiled” estiloak zipriritinduta dagoena.

Genero beltzarekin bat egiten duen bestelako ezaugarri bat *lumpenaren* irudikapena da. Alde batetik, Miriamen gaindosiak eta Zutarrietako hilketek heroinaren gaineko urte gogorrak dakartzkite gogora, nahiz eta eleberrian 2011n girotua egon eta 80etako urteak

atzean geratu. Bestetik, Nafarroako mendateetako errepide bazterretako putetxeek giro likits hori irudikatzen laguntzen dute, kanpotik: “latak eta kondoia bazterretan. Guardia Zibilaren zerrenda bat zegoen artean zuhaixka anemiko bati loturik [...] pintaketa bat [...] letra gorrietan *Txibatoak* oihukatzen zuena. Diana bat zegoen haren ondoan” (247), zein barrutik: “Asiainek apaingarri hautsezatuei begiratu zien. Hotz egiten zuen, eraikinak artean negu giroa gordeko balu bezala” (249).

Azkenik, tramaren askapenari dagokionez, telenobela batean bezala argumentua harrigarriki korapilatzen doa baina azkenean hari mataza guztiak argitzen dira. Rojok (2014) esan bezala, “argumentua batzuetan hain nahasia suertatzen da, non ematen baitu dena antolatuta dagoela mosaiko batean bezala pieza guztiek azkenean bere tokia aurki dezaten, hau da, azkeneko azalpen logikari begira dagoela antolatuta den hasieratik”.

3.4. Zintzoen saldoan

Jon Alonsoren *Zintzoen saldoan* eleberriak (2012) irakurlea goi-mailako sukaldaritzaren mundura bideratzen du. Enekoitz Ramírez Goikoetxea *Lanbas* da protagonista: “ETAkide ohia, arte-faltsutzaile ohia, presidiarioa eta jatetxe lapurra... besteak beste” (20). Egun talde batekin euskal jatetxerik onenetan lapurretan ibiltzen da. Gau batez, Florinda taldekide eta lagunarekin Kepa Pedrotegi izeneko sukaldari baten jatetxera afaltzera joan ondoren, Pedrotegi hilik agertuko da, hilketa Lanbasi leporatu eta kartzelaratu egiten dute, bere aurrekariak kontuan izanik. Espetxeko egonaldia laburra da; izan ere, abokatu batek (Bilbao Venturak) eta kazetari batek (Fran Bildosolak) fidantza ordainduko dute. Kartzelatik atera izanaren truke, ordea, Lanbasi ukatu ezin duen lan eskaintza bat egiten diote, Kepa Pedrotegiren hilketa bere kabuz argitzea, alegia. Ikerketak Mexikora eramango du protagonista, bertan Pedrotegientzat produktu esportatze eta inportatze-lanetan zebilen morroi batek (Daniel Ursuak) arazoak dituela eta hura laguntzera. Ameriketako egonaldi horretan gertakarien eragile den atzeko arrazoia argituko da; Pedrotegi eta Ursuaren arteko negozioaren atzean dauden trapu zikinak, hain zuzen. Hala nola, droga-sareak eta hemendik lortutako diruaren zuritze planak eta paradisu fiskalak.

- Narratzailea eta pertsonaiak

Eleberriko narratzailea protagonista bera da, Lanbas. Hortaz, narratzailea intra-autodiegetikoa izanik, gertaerak lehenengo pertsona singularrean kontatzen dira. Fokalizazioari dagokionez, fokua Lanbasen gainean txertatuta dago. Halere, protagonistaren ezagutza bi erataria gauzatzen da, esaten duena esaten ez duenarekin alderatzen baita, azkenekoa pentsamenduek bideraturik.

Eleberrian pertsonaia asko ageri direnez, lehen mailako eta bigarren mailakoei soilik erreparatuko diegu:

- *Lanbas*: Enekoitz Ramírez Goikoetxea, ezizenez *Lanbas*, da nobelako protagonista, iraganean etakide, preso eta arte salerosle izanikoa. Orain, bost kidek (Florinda, Matiartu, Toni, Andrea eta Lanbasek) osatzen duten “taldetxo” batekin euskal jatetxerik onenetan “paloak” (11) ematen dabil, baina “lapur sano” gisa du bere burua (121). Kartzelan hirutan egondakoa eta lehendabizikoan tortura pairatutako pertsonaia da: “— Aspaldi, urte asko direla, lehen aldiz harrapatu nindutenean, torturatu ninduten —esan nuen, eman zidaten ostia-piloa ez daukadalakomahazteko, denbora luzea igaro bada ere” (12). Kartzelan egondako lehendabiziko aldia etakide izandako garaietan izan zen, “Estatuaren aurkako jardueretan nahastuta izateaz akusatuta” (102). Bigarrena, Iruñeko katedralean kaliza bat eta bestelako zenbait gauza lapurtzeagatik eta hirugarrena, ordea, koadro ospetsu baten faltsutze-plan saiakeragatik. Izan ere, Lanbas Jon Alonsoren *Camembert helburu* (1998) nobelako protagonista dela jabetzen gara une honetan¹¹. Protagonistak kartzelan hirutan egon dela aipatzen badu ere, *Zintzoen saldoan* liburuko aldia aintzat hartuta, lautan egon da, baina azkeneko aldia hain izan da laburra, ezen ez baitu aintzat hartzen. Eta, “hala ere, hiru egonaldien artean ere, ez zen iritsi zazpi urtera barruan pasatako denbora” (105).

Ironiaz eta umorez beteriko gizona dela ikus daiteke eta, honekin batera, “hardboiled” estiloko detektibe ereduarekin bat eginik, zabartasun zantzuak nonahi antzeman

¹¹“*Camembert helburu*-tik lanbasa baino gutxiago mugitu den Enekoitz Ramirez da *Zintzoen saldoan* nobelako protagonista” (Bereziartua 2012). Hori horrela, *Zintzoen saldoan* eleberrian aipu asko egiten zaizkio nobela hartako gorabeherei (102-104). Bestalde, *Camembert helburu* honela aipatzen ziren orduko bi kartzelaldiak: “Bi aldiz egon naiz kartzelan. Lehen aldia aspaldi izan zen, hain ezagun egin den erakunde armatuaren komando batean aritu izan eta gero. Lehenengo hartan espetxez espetxe erabili ninduten [...] 83an ezagutu nuen berriz kartzela. Oraingo honetan urtebete egin nuen giltzapean. Iruñeko Katedraletik lau kaliza eta Ama Birjinaren eskultura bat eraman zituzten, halako batean. Bada, horregatik kartzelaratu ninduten” (Alonso 1998).

daitezke. Bestalde, Florindaren eta, orokorrean, emakumeen gainean bere baitara egiten dituen iruzkinak irakurlearengan arbuioa sorraraztera hel daitezke:

Nik esan behar banu, pepinoak hazi zitzaizkion itzalean igaro nuen denbora laburrean [...] Piropo zakar batzuk bota nizkion, aldamioan daudenek bota ohi dituztenetakoak. [...] Ostia! Zer besterik esan bi meloi bete eta obszenoki estrabiko horien, bi titi-punta beltz, zabal eta dilindari horien aurrean. [...] Koartadarik gabeko gizon guztien ametsa: ordainduta balitz bezala, baina debalde (14).

Gainera, pertsonaiak berak aurreko ideia baieztatu egiten du bere burua izendatzeko erabiltzen dituen adjektiboekin: “Gizon guztiak nazkagarriak gara, bai” (14). Nahiz eta era berean, inguratzen dituen marrazo guztien artean kodigo propiodun arrain txikitzat duen bere burua.

Nobelaren amaieran Lanbas ezizenaren jatorria iradokitzen da. “Lanbas *fregona* da, tresna bat” (141) diotso mexikarrari eta hain zuzen, “beste batek utzitako arrastoa garbitzea” (135) izango da bere zeregina. Nobelaren amaieran aitortuko duen bezala: : “orain ere, zer ari naiz hemen, bestek lurlean barreiatutako zikina garbitzen ez bada?” (142).

- Fran Bildosola: Bildosola ofizioz kazetaria eta Lanbas kartzelatik ateratzeko fidantza ordaindu duena. Negozio handiak egiteko prest dagoen morroia: “Albiriste taldeko kazetaria naiz, gastronomia sailaz arduratzen naiz, harreman onak ditut, mundu guztia ezagutzen dut” (22). Harentzat lan egiten dutenekiko botere handia duen pertsonaia bat bezala aurkezten da, Florindak Lanbasi gogorarazi bezala, “zure askatasuna eta lasaitasuna bermatzeko adina botere daukan norbait” (120) da. Bestalde, droga kontsumitzaile eta alkohol-zale amorratu gisa ageri da eleberrian, “alkoholarekiko tolerantzia goren graduan garatu duen horietakoa” (116).

- Bilbao Ventura: “Bildosola agintzen dutenen morroia” (120) bada, Ventura agintzen dutenen morroiaren morroia litzateke

Bigarren mailako pertsonaien artean honakoak dira esanguratsuenak:

- Florinda: Nobela osoan zehar ageri den emakume bakarra da eta gainera, pertsonaia sentikorraren rola egokitu zaion bakarra ere bai. Nobelaren alderdi sentimentalista, gutxienekoa bada ere, Florindaren eskutik bermatzen da. Lanbasen taldekide eta

“bikotea” ez ezik, hura da Lanbasi gertatzen zaizkion gauzak sufrutuko eta adieraziko dituen. Hala ere, Lanbasen itxurakeria bazterrarazteko eta haren barrenak mugiarazteko gai den bakarra ere bera da. Nerabezaro gogorra pasa zuen Florindak, hamasei urterekin haurdun geratu, abortatu eta bere aitaren etxetik alde egin behar izan zuen. Honen ondotik, dirua lortzearen prostituzio lanak egin behar izan zituen eta garai hartan batean hiesaz kutsatu zen.

-Daniel Ursua: Gerra Zibilean Mexikora erbesteratutako errefuxiatuen semea da, hortik datorrakio ezizena: *Mariatxia*. Jakiak esportatze eta inportatze lanetan aritzen da Amerika eta Europaren artean eta dirutza handia eginiko gizona da. “Ursuak Pedrotegiren ideiak finantzatzen zituen” (87) eta “alderdi politiko batentzat donazioak egiten zituen, eskuzabalak, legeak onartzen duenaren muga-mugan” (88). Mexikora egindako azkeneko bidaian lan-arazoetan sartu eta bertan dagoela bahitu egin dute. Izan ere, “Ursuaren balantza komertzialean beti zegoen gai zuriren bat” (135).

- Denbora eta espazioa

Bi eszenatoki nagusi ageri dira eleberrian, Euskal Herria eta Mexikoko Tepito. Bi lurraldeak hainbat erataria harremantzen dira nobelan, alde batetik, merkataritza-harremana genuke eta, bestetik, Gerra Zibil eta ETA garaiko errefuxiatu eta iheslarien erbesteratzeko hautua. Alonsok Tepito aukeratzen du narkotrafiko, delinkuentzia eta, orokorrean, *lumpen* giro hori islatzeko; izan ere, Tepito Mexiko hiriko *barrio bravo* izenez ezaguna da, Mexikoko auzo arriskutsuenen artean sailkatua. Bereziki, merkataritza eta artisau auzoa da, Daniel Ursua bertatik Euskal Herrira jaki eta produktu inportatze lanetan aritzeko gune aproposa, beraz. Baina, honekin batera, jakiak garraiatze lan honek ezkutuan dakarren droga-sarea kokatzeko leku egokia ere bada. Euskal Herria eta Mexikoren bigarren loturaren inguruan, Ursuaren eskutik erbestea islatzen da eta, era berean, euskal gatazka jorratzen duen eleberria izanik, deserriratutako etakideen inguruko hausnarketak edota zertzeladak ematen dira.

Azkenik, bi espazioen artean bada beste loturarik, bi lurraldeetako biolentzia eta gatazka egoerak alderatzearena, hain zuzen. Konparaziotik iradokitzen den ondorioa argia delarik: “garairik latzenetako Euskal Herria urmael bare bat zela Mexikorekin alderatuta” (138).

Denborari dagokionez, gertakari guztiak orainaldian gauzatzen dira, baina narratzaileak sarritan egiten dituen digresioen bidez protagonistaren iraganeko kontuak ezagutzeko aukera ematen da, nagusiki etakide izandako garaiaren ingurukoak. Era honetan, gatazka soilik narratzaileak iraganaz diharduenean agertzen da, iraganeko mamu baten gisara. *Zintzoen saldoan* ETA osteko eleberria dela kontuan izanik, baliteke gatazka aspaldiko kontu bat bezala irudikatzea Alonsok eginiko hautua izatea, argumentuaren testuinguruak egiantzekotasuna izan dezan. Betiere, fikzioa egiten ari dela ahaztu gabe.

- Jorratutako gaiak

- Gatazkaren semantika

Aipatu bezala, euskal gatazka aspaldiko mamu bat bezala jorratzen da eleberrian eta soilik iraganaz ari denean agertuko da, “atentatuak lantzaz egiten zireneko” (102) garaiak aipatzean. Bere lehendabiziko atxiloketa eta espetxeratzea, ordea, “historiaren istripuztat” hartzen du eta honela deskribatzen du garai hura:

Herri honetan nor direnek ere aitortzen dute erakunde famatu haren hasiera mundu zabaleko garai hartako historiaren lerro nagusiekin bat etorri zela; gero esaten dute ez dutela ulertzen, aldiz, nolatan iraun duen hainbeste. Ahantzi bide dute, nonbait, gauetik goizera, eta interesatuki, agi denez, errepresioaren historia luze, lotsa emangarri, antidemokratiko, justifikatu gabe eta aski berezi gabeko batek eragindako kaltea (103).

ETAren jardunarekin loturiko garai bateko beste elementu bat ere aipatzen da nobelan: zerga iraultzailea. Kepa Pedrotegi sukaldariaren hilketaren hipotesiez ari diela, honakoa zehazten da: “ulertu ahal izan nuenez, euskal sukaldarietan hiru sukaldari-klase zeuden: zerga iraultzailea ordaintzen zutenak, ordaindu ez baino konplizeak zirenak, eta ordaindu ez, eta konplize ere izan nahi ez zutenak” (42). Umore beltza muturrera eramaten da Lanbasek iradokitzen duenean zerga iraultzailearena zenbait sukaldarik harrotasunerako eta botere-erakustalditxorako ere baliatu izan zutela: “niri ETAk hainbeste eskatu dit –ordaintzea oraindik delitua ez zenean zirkulu pribatuetan esaten zuten bezala” (63).

Bestalde, “marxisten atzetik lehen” eta “etarren atzetik gero” (159) segika ibili den polizia espainiar baten ikuspuntua ere eskaintzen da eta honek alde batean zein bestean egon izana bizitza alferrik galtzearen pareko dela azpimarratzen du. Euskaldun abertzaleei dagokienez, “ez zarete inoiz aspertzen, ala?” (153) galderaren bitartez euren

borrokaren hutsaltasuna da islatzen duen ikuspuntua eta, poliziari berari dagokiona, aldiz, honela adierazten du beste aldekoen baliogabea ere: “—Jarri hadi nire tokian. Mulatoak, txinoak, euskaldunak, mexikarrak... Niri igual-igual zaidak, doazela infernura, edo zerura [...] nik nahi dudana bakarra duk etxean egotea nire zapatilekin” (155).

Azkenik, gatazkarekin loturik, Euskal Herriko egoeraren eta Mexikokoaren alderaketa da nobelaren amaieran indarra hartzen duena. Iradokitzen den metafora harago emanaz, Euskal Herriko gatazka putzu bat litzateke Mexikoko itsaso zakarrarekin alderatuz. Eta biolentzia gauzatzeko moduen alderaketa esplizituan ere (142-143), argi gelditzen da biolentziaren helburuak, bitartekoak, etsaiak eta azken batean, gatazka egoerak, bere osotasunean, oso bestelakoak direla: “heriotza emateko eta bortxa erabiltzeko modua herrien kulturaren eta erakundeen idiosinkrasiaren erakusgarriak ziren” (142).

- Gatazkaren elementuak eleberri beltzaren klabeetan

Izenburua *Zintzoen saldoa* izanik eta, ondorioz, gaiztoen saldoa ere iradokiz, hemen ere izatez ez dago *ongiaren* eta *gaizkiaren* arteko bereizketa gardenik. Okerrago agian, zintzoen saldoan kokatzen direnak izango baitira ustelkeria, xantaiak, azpijokoak, traizioak eta politikoki zuzenak ez diren bideak urratzen trebeenak. Pertsonaia guztiek – izan kazetari, abokatu, polizi, merkataria zein preso ohi– legez kanpoko bideak baliatuko dituzte euren ekintzak aurrera eramatearren eta zintzoen artean egon edo ez egotearen gakoa, hau da, *ongia* eta *gaizkiaren* arteko aldea, norbanakoaren eginkizunen xedean oinarrituko da. Hori horrela, Lanbasen nahigabe handiena lapur sana izateari utzi eta justuen samaldan halabeharrez lerrokatzea izango da: “horrexek izorratzen ninduen gehien, horrexek lohi sentiarazten: zintzoen saldoan egoteak” (184).

Bestetik, eleberri beltzean ohikoa den *lumpen* giroa islatzen da, nagusiki Tepito espazioaren bitartez.

Tepito Mexiko guztiko merkatu famatuetakoa da. Merkatu klandestinoa, non denetarik aurkitzen baita, beste toki batzuetan baino askoz ere merkeago. Auzo arriskutsua zen [...] denetarik aurkitzen zen: [...], alkohol adulteratua, farmakoak, pornografia, jostailu erotikoak, animaliak, drogak pasaporte eta agiri faltsuak, armak, drogak, prostitutak... [...] *Narkomenudearen* paradisu (169).

Halaber, auzoaren bestelako irudi bat ere ematen da: “tepitooarren kemena, beren auzoa defendatu eta hobetzen saiatzeko” (170) ezaguna ere bazena.

Lanbasek burutuko duen ikerketa propioarena da eleberri beltzeko beste konstante bat. Lanbasi enboscada prestatuko diote bere kabuz Pedrotegiren hilketa argitzen saiatu dadin, “bezero bereziak ikerketa berezia nahi du” (22). Halaxe egingo du Lanbasek, nahiz eta “Ertzaintza, nazionalak eta *ama putiaren* seme-alaba guztiak” (22) ere hilketa argitzen dabilzan. Ikerketa berezi bat, beraz, ikertzaile berezi batentzat egoera berezi batean.

Zintzoen saldoan eleberrian, genero beltzarekin bat eginik, narratzaileak digresioak egin eta gizartean dauden bidegabekeriak etengabe salatzen ditu, askotan iruzkin bakar baten bidez aditzera ematen badira ere. Gizarteko esparru asko eta alderdi sozial ugari ukitzen dituen arren –garraio bide eta azpiegiturak (AHTa kasu), moraltasuna eta etika, Eliza, turismoa, kostaldeko lurraldeetan eraikitako luxuzko hotelak, prostituzioa...–, jorrotutako gai nagusien artean bi leudeke: goi-mailako sukaldaritza eta honen atzean ezkututzen den diru-zuriketa eta paradisu fiskalak. Egañaren (2013) hitzetan “kutsu poliziako eta beltzeko ikerketa baten aitzakian kultur esparru baten gaineko gogoeta eta kritika zorrotza bilatu du Alonsok”. Izan ere, argumentuaren oinarrian eta ekintzen abiarazlea goi-mailako sukaldaritzaren atzean sortutako droga-sarea izanik, Alonsok negozio honetatik ateratako diruaren zuriketaren gaineko hausnarketa sakona eskaintzen du.

4. Ondorioak

Lanaren izenburuak iradokitzen duen bezala, lan honen helburua ez da egungo euskal eleberri beltzaren ezaugarriak zedarritzea izan, baizik eta euskal nobelagintza beltzean euskal gatazkak izan dituen irudikapenak aztertu eta azaleratzea. Hortaz, bi itemen inguruan laburbil liteke landutako eleberrien aztergai nagusia: eleberri beltza eta euskal gatazka.

Lehenengo atalaren berezitasunei dagokienez, aztertutako lau eleberrietan nobela beltzean ezinbestekoak diren zenbait ezaugarri ageri dira. Era batera edo bestera, *ongiaren* eta *gaizkiaren* arteko talka jorrotzen da, askotan bereizketa gardenik erakutsi gabe. Tramak aurrera egin ahala eta gertakariak korapilatu ahala, *onen bandoan* –edo

Alonsok esango lukeen bezala *zintzoen saldoan*– dabilzan pertsonaiek ere legezko bideetatik urruntzen diren ekintzak burutuko dituzte eta, honekin batera, nobelen indarkeria eta genero beltzean hain ohikoa den *lumpen* giroa islatzeko bide izango den ezaugarria ere bada (prostituzioa, drogak, jukutriak...). Gertakarien ikerlari gisa, zenbaitetan polizia bat izango dela ikusi dugu, esaterako, Leire Asiain Foruzaingoko inspektorea, baina bestelakoetan antiheroi edo galtzaile gisakoak dira protagonista –izan drogazalea, alkoholikoa edota langabea–, Enekoitz Ramirez *Lanbas*, Ander Irujo edota Jon Iriarte, kasu. Bestalde, euskal literaturan polizia onaren irudia txertatzeko zailtasunak ikusirik, lau eleberrietan euskal gizartearen errealitate hori islatzen dela baieztatu daiteke eta polizia bera da lau eleberriek jorratzen duten gaietariko bat; nagusiki, ustelkeria, informazio trafikoa zein ezkatutze eta autoritate edota hierarkia arteko botere-norgehiagokarekin lotuta. Azkeneko ezaugarri hori, Nafarroan kokatutako *Ladron Aranaren* eleberrietan batik bat. Polizien artean beti hierarkia bera agertuko da, nobela guztietan “okerrena” eta “ustelduena” Guardia Zibila da (Dasilva inspektore ohi eta Alvira komandantearengan gorpuztuak, kasu). Bestalde, eleberri guztietan “bertsio ofiziala” ezbaian jarriko da eta legearen mugak lausotuz, bazterreko pertsonaiek bazterreko ikerketa burutuko dute egia azaleratzearen. Nahiz eta egia horren atzean ere gezur eta interes asko egon.

Euskal gatazkari dagokionez ordea, aztertutako nobelen artean alde handiagoa dagoela ikus daiteke. *Ladron Aranaren* bi eleberrietan, adibidez, pertsonaia bat etakide izatearen hautua, ETaren inguruan eta orokorrean gatazkaz hitz egiteko baino, argumentua korapilatzeke aitzakia bat besterik ez dela dirudi, *Piztiaren begiak* eleberrian *Harrian mezuan* baino zertxobait gehiago lantzen bada ere (Dasilva eta Xabierren planoan gatazkak beraganatzen duen protagonismoarengatik, bereziki). Iñaki Irasizabalen *Bizkartzainaren lehentasunak* eleberrian, aldiz, argumentuaren oinarrian ETaren su-etenaren inguruko hausnarketa dago eta hasiera batean autoreak bake prozesuaren inguruko kontuak erakundetik kanpoko ikuspegi batetik landuko dituela dirudien arren, nobelak barne ikuspuntu bat ere garatzen du ETaren barnean gertaturiko talkez eta zatiketaz hitz eginez. Baina boterean dauden politikarien injustiziak ere salatzen dira, eskrupulurik gabeko Barne Sailburuaren bitartez. Azkenik, Jon Alonsoren liburuetan ikus daitekeenez, gizarteko gai gehien jorratzen dituen eleberria litzateke, euskal gizartearen arazoei dagozkienak nola mundu mailakoak. *Ladron Aranaren* nobeletan ez bezala, tramaren ezusteko korapiloek ez dute oraingoan hainbesteko garrantzirik eta

Zintzoen Saldoan nobela idazleak hausnarketa sakonak eskaintzeko darabiltzan digresioz beterik aurki daiteke.

Bestalde, esanguratsua da idazleek gatazkaren inguruan erabilitako terminologia. Badirudi, fikzioa egiten ari direla azpimarratzeko tresna gisa eufemismorako joera handia dagoela. *Bizkartzainaren lehentasunak*, esaterako, behin ere ez da ETA hitza erabiliko eta haren ordez “erakunde” bezalako hitzak ageri dira. Era berean, Alonsoren *Zintzoen saldoan* ere, etakidea izan zen galdetzen zaionean Lanbasek Estatuaren aurkako jardueretan nahastuta ibili zela erantzuten du. Era berean, askotan ETAREN ekintzak ere eufemismo bidez aipatzen dira (lan txiki bat egin izana, zeregina zehaztu gabe) eta espetxeratuak izatearen arrazoiak ere sarritan ez dira argitzen (baina bai zehazten da odol deliturik ez dutela, kolaboratzaileak izan zirela, etab.). Kasu batzuetan, balizko atentatu saiakerak aipatzen dira, fikziozkoak inondik ere, *Piztiaren begiak* eleberriko “Printzearen kontrako bahiketa” (45), adibidez; nahiz eta beste kasu batzuetan, errealitateko gertakarien egon daitezkeen atzean, *Bizkartzainaren lehentasunak* eleberriko Martinen neskalagunaren kasua bezala, lehergailu bat prestatzen hildakoarena, alegia.

Azkenik, harrigarria egin zaigu sarritan protagonistak etakideak edota etakide ohiak izanagatik, ez dela ETAREN bilakaerari buruzko gogoetarik eskaintzen, edota eskaintzen denean oso labur eta halamoduz egin izana. Adibidez, *Piztiaren begiak* eleberrian 2003 eta 2004ko ETAREN atentatuak aipatzen badira ere, 2011ko su-eten iragarpenaz ez da txintik esaten, nahiz eta pertsonaia 2012an aterako den kartzelatik. Hau da, esanguratsuak diren gertakari garrantzitsuenen inguruan ez da gogoeta sozio-politikorik eskaintzen. Berdina jazotzen da *Harrian mezuan* nobelan ere, baina berezitasun batekin. Pertsonaiak kaleetan presoak etxeratzearen aldako maindireak ikustean errendizio eta amore ematearekin lotuko du. Are, birgizarteratu eta biktimei barkamena eskatzea ere estrategia egoista gisa agertzen da aipatu nobeletan. Are, *Zintzoen saldoan* eleberrian ere badirudi nostalgia gisa gogoratzen duela protagonistak atentatuak lantzaz egiten zireneko garaiak.

Eta agian, guzti honegatik berresten du Zalduak egungo euskal eleberri beltzean gatazkaren gaia banalizatuta ageri dela. Azterturiko eleberrietan behintzat ez dago gogoeta edota kritika sozialik, ez politikoa behintzat, eta autokritika are gutxiago...

Guardia Zibilaren eta politikarien bidegabekeriak salatzen dira bereziki, baina *artxibilauaren* arketipotik gertuago, zinezko behaketa soziopolitiko batetik baino.

Ondorioz, baieztatu dezakegu azkenaldiko euskal literaturako beste hainbat lanetan bezala, egungo euskal eleberri beltzean euskal gatazka bai agertzen dela, gertakarien bigarren plano batean bada ere; baina aldi berean, sarritan gatazkako elementuak argumentua korapilatzeko osagai soil bihurtzen direla eta gutxitan eskaintzen da errebisionismorako joera eta gogoeta soziopolitikoak uztartzeko jaidura.

5. Bibliografia

- ALONSO, J. (2012): *Zintzoen saldoan*, Tafalla: Txalaparta.
- ALONSO, J. (2015): *Hiri hondakin solidoak*, Tafalla: Txalaparta.
- ALONSO, J. (2015): *Beltzaren koloreak*, Zarautz: Susa.
- ALONSO RUIZ, J. (2015): “Evolución de la novela negra: del detective duro al munstro educado”, *Alcántara*, 81, 2015, 137-146.
- ARTOLA, A. (2014): ““Harrian mezua” nobela beltza aurkeztu du Alberto Ladronek”, *Gara*, 2014-10-15. <https://www.naiz.eus/es/hemeroteca/gara/editions/gara_2014-10-15-07-00/hemeroteca_articulos/harrian-mezua-nobela-beltza-aurkeztu-du-alberto-ladronek>, [2020/07/17]
- CHANDLER, R. (1980): *El simple arte de matar*, Barcelona: Bruguera.
- CILLERO, J. (2007): “*Amabost egun Urgain'en* (1955) eta eleberrigintza poliziakoaren hastapenak”, *Euskera*, lib. LII, 2007, 599-615.
- CILLERO, J. (2016): “Martin Garaidiren fitxa: euskal detektibeen aitona atzetik”, *Euskera*, lib. LXI, 2, 2016, 464-483.
- EGAÑA, I. (2013): “Ase gabe”, *Deia*, 2013-01-26. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5731>> [2020/08/07]
- EGAÑA, I. & ZELAIETA, E. (koord.) (2006): *Maldetan sagarrak. Euskal gatazka euskal literaturan*, Bilbo: UEU.
- ESER, P. (Koord) (2019), Narrativas del después: El “boom de la memoria” y las imaginaciones culturales del pasado violento en el escenario del pos-conflicto vasco, *Olivar*, Vol. 19 Núm. 20.
- ESNAOLA, I. (2012): “Ehiza garaia”, *Berria*, 2012-10-21. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5565>>, [2020/07/10]
- EZKERRA, E. (2015): ““Lanbas” itzuli da”, *Gara*, 2015-11-07. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=6773>>, [2020/08/11]
- GURRUTXAGA, A. (2013): “Beltza, azkarra, sinplea”, *Berria*, 2013-06-09. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5852>>, [2020/08/02]
- GURRUTXAGA, A. (2016): “Gure akademia ustela”, *Berria*, 2016-01-31. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=6841>>, [2020/08/11]
- HERNANDEZ ABAITUA, M. (1982): “Nobela beltza eta polizi nobela klasikoa”, *Jakin*, urria-abendua, 25, 51-67.
- IRASIZABAL, I. (2013): *Bizkartzainaren lehentasunak*, Donostia: Elkar.
- KORTAZAR, J. (1983): ““Hamaseigarrenean aidanez””: iragarritako sari baten kronika”, *Jakin*, 1983-09. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=3870>>, [2020/03/23]

- KORTAZAR, J. (2009), “Xabier Gereño” in Kortazar, J. (zuz.), *Euskal Literaturaren Hiztegia*, Bilbo: EHU. <<https://www.ehu.es/ehg/literatura/idazleak/?p=455>>, [2020/03/20]
- LADRON ARANA, A. (2017): *Harrian mezua*, Donostia: Elkar.
- MITXELENA, K. (1955): “Amabost egun Urgainen”, *Egan*, <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=6671>>, [2020/03/20]
- OLAZIREGI, M.J. (2002): *Euskal eleberriaren historia*. Bilbo: Labayru. Amorebieta-Etxanoko Udala, 68-177.
- OTAEGI, L. (2008), “Hamabost egun Urgain’en (1955)” in Kortazar, J. (zuz.), *Euskal Literaturaren Hiztegia*, Bilbo: EHU. <<https://www.ehu.es/ehg/literatura/?p=550>>, [2020/03/20]
- ROJO, J. (2012): “Krimenaren atzean”, *El Correo*, 2012-09-22. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5548>>, [2020/07/10]
- ROJO, J. (2013): “Thriller politikoa”, *Diario Vasco*, 2013-04-19. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5808>>, [2020/08/02]
- ROJO, J. (2014): “Krimenen atzean”, *El Correo*, 2014-11-01. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=6293>>, [2020/07/21]
- SÁNCHEZ ZAPATERO, J. (2017): “Poéticas criminales: reflexiones teóricas de escritores de novela negra y policiaca”, *Tropelías*, 2, 2017, 120-132.
- SARASOLA, I. (1976): *Historia social de la literatura vasca*, Barcelona: Akal, 158.
- ZALDUA, I. (2013): “Pastel beltza”, *Gara*, 2013-09-01. <<https://kritikak.armiarma.eus/?p=5895>>, [2020/08/02]
- ZALDUA, I. (2016): “Onena iristeke? Gauzaren literaturaren norabide berriak” in ZALDUA, I. (ed.), (*Euskal literaturaren alde (eta kontra)*), Donostia: Elkar, 131-136.

ERANSKINA

Hiri hondakin solidoak eleberraren azterketa

Jon Alonsoren *Hiri hondakin solidoak* (2015) eleberrari dagokionez, goi-mailako sukaldaritza eremutik aldendu eta Euskaltzaindia eta unibertsitate giroan kokatzen da. Gertakariak Bilbon dute leku eta Euskaltzaindiak mehatxuzko gutun anonimo batzuk jasotzearekin batera hasten dira. Bildosolak, berriz ere, Enekoitz Ramírez Lanbas kontratatuko du anonimoen kasua argitzearren. Aste batzuk geroago, unibertsitateko katedradun eta Euskaltzaindiako urgazle den Arespakotxaga Bartzelonako edukiontzi batean biluzik hilda agertzen da. Horrela, anonimoen kasuarekin zerikusia izan dezakeen susmoaz, Lanbas Bartzelonara manatuko dute. Beste behin, bertsio ofiziala eta *egiaren* arteko auzia agerian jartzen da: izan ere, poliziak hilketa errugabea den gazte delitugile bati leporatuko dio eta Lanbasek eta bertan ezagutzen duen Charo prostituta batek elkarrekin jardungo dute akusatu gaztea libre uzteko ahaleginean. Ikerketa honetan prostituzioa, emakumezkoen salerosketa, droga, diru zuriketa eta abarrekin lotutako pertsonaiak ezagutuko ditu Lanbasek, anonimoak bidaltzen zituena nor zen asmatu arte, eta gertakarien abiarazlea Euskaltzaindia barneko azkeneko kontu berrikusketan 600.000 euroko fondo-desbideratzea dela argituz.

- Narratzailea eta pertsonaiak

Aurretik esan bezala, *Hiri hondakin solidoak* eleberriko narratzailea ez ezik, lehenengo mailako pertsonaiak ere *Zintzoen saldoan* liburuko berberak dira, hots, Lanbas, Bildosola eta Ventura. Hortaz, hiru pertsonaia nagusiak eta narratzailea aurreko azpiatalean aztertutzat emanez, oraingoan *Hiri hondakin solidoak* eleberrian agertzen diren bestelako pertsonaiei helduko diegu.

-Charo: Lanbasek Bartzelonako pub batean ezaguturiko prostituta da. Iraganean “sexuaren negozioa”-n (256) jardun den morroi batentzat lan egin zuen. Charok morroiari baldintza bakarra jarri zion: “jolasean aritzen ziren guztiak beren borondatez ari izatea. Baina laster hasi zen gauza arraroak ikusten, eta utzi egin zuen” (272).

Dena den, pertsonaia honek ez du bat egiten prostituzioan sartutako emakume gehienek egoerarekin. Charo bere eskubideak dituen eta borondatez putu sartu den emakumea da, baina, era berean, prostituzioaren baitan eskubideen alde borrokan aritzen den prostituta

ere bada eta modu aktibo-militantean, prostituzioa erregularizatzearen aldeko borrokan dihardu lanean. Emakume ahaldundua da, inondik ere: “Hizkera propioa izatera iritsi den eta puta denaren ikuspegitik hitz egiten zuen, noski. Gehienak ez izaki hizkera baten jabe. Charok, aldiz, mintzaldiak ematen zituen han eta hemen, penintsulan barna, eskatzen ziotenean” (243).

-Arespakotxaga eta Argiturri: Arespakotxaga da nobelako biktima. Unibertsitateko Filologia katedradun ospetsua ez ezik, Euskaltzain urgazlea ere bazen eta “lehenago edo geroago akademiko oso izendatuko zuten” (105). Kasimiro Argiturri Arespakotxagaren koinatua da eta bien arteko harremanari dagokionez, jendeak susmoa du Argiturrik Arespakotxagari inbidia eta erra diola: “baliteke Argiturrik Arespakotxagaren maila zientifikoa mirestea” eta “hortik jeloskeria eta bekaitz izatea erator liteke” (203). Amaieran, Lanbasek eta Charok Arespakotxagaren hilketaren ingurumariak argituko dituzte, hots, nola Arespakotxagak sexu-jolasak antolatzeaz arduratzen zen enpresa klandestino batekin eta hurrekin harremanak izateko ere ordaindu zuela. Argiturri dagokionez, ostera, tramaren amaieran Lanbasek Argiturri Euskaltzaindiaren egoitzan anonimo bat uzten harrapatuko du eta pertsekuzio baten ostean, anonimoak bidaltzearen arrazoa honakoa dela esango dio: “Barne-auditoria bat egin zen. Seiehun mila euro falta ziren. Jendeak jakin behar du” (299).

- Ariadna: Ofizioz kazetaria da eta anonimoen kasua ikertzen jardungo du. Hala ere, Lanbasekin tratu bat egingo du elkarri laguntza ematearren, baina Lanbasek aitortu legez, bakarrik komeni zaionean gerturatuko da eta gehiago izango da Lanbasek Ariadnari eskainiko dion informazioa alderantziz baino. Bestalde, komunikabideak, informazioaren filtratzeak eta antzeko gaiak Ariadnaren eskutik jorratuko dira, baita kazetaritzaren funtzionatzeko erak edo baliatutako bideak ere.

- Denbora eta espazioa

Eleberrian zehar Lanbasek hainbat lekutara bidaiatuko du, hala nola, Andorra, eta Sitges, baina bi espazio izango dira nagusiak: Bilbo eta Bartzelona.

Bilbo euskal akademia kritikaren jomugan jartzeko baliatuko du narratzaileak eta, era berean, eleberriari nolabaiteko borobiltasuna emango dio: kontakizuna Lanbas Plaza Barrian dagoela hasi eta bukatutzen da. Bestalde, Bartzelonak *lumpen* giroa islatzeko aukera ematen dio, “gaizkia gauzatzeko eremu egoki gisa irudikatzen delako”

(Galarraga, 2016) eta honen kasuan, “urbanismoa eta gentrifikazioa kritikagai bilakatzen dira” (Gurrutxaga, 2016).

Denborari dagokionez, *Zintzoen saldoan* bezalaxe, kontakizuna oso ugariak diren digresioek eteten badute ere, kontaketa nahiko lineala da. Ordena kronologikoan gauzatzen diren egoera desberdinak aurkezten dira eta hauek lau ataletan banatuta daude. Dena den, eleberriak aurrera egin ahala digresioak ere murriztuz doaz eta *thriller* kutsua joango da nagusitzen; ekintza asko asko egoteaz gain, alderdi kritikoa ere gutxitu egingo da.

- Jorratutako gaiak

- Gatazkaren semantika

Egian esan, gatazkak ez du leku handirik hartzen eleberrian, “euskal gatazka” izendatuak, behintzat. Aurreko nobelak ez bezala, oraingoan ez dira hain ugariak iraganari buruz egindako iruzkinak eta, protagonistak une oro egiten dituen iruzkinak haren ideologia politikoa argi uzten badute ere, gutxitan ematen da Lanbasen eta ETAREN arteko zuzeneko harremanaren berri.

Lanbasek, bere etakide ohi, preso ohi, arte salerosle ohi eta lapur ohi izaerarekin, mundu ikuskera bat islatzeko aukera ematen dio autoreari eta, kasu honetan, euskal gatazka lantzeko eleberria baino, pertsonaiaren izaera eta jokamoldea osatu eta garatzeko balio dute ezaugarri horiek guztiek.

- Gatazkaren elementuak eleberri beltzaren klabeetan

Eleberri beltzen bidez Alonsok askotariko esparruak ukitzeko joera azaltzen du eta oraingo honetan ere hala den arren, kritikaren jopuntuan euskal akademiaren alderdi nagusiak ageri dira; Euskaltzaindia eta Unibertsitatea.

Lehenengo atalak ekintzari leku gutxi eskaintzen dio eta, batik bat, euskal akademia eta akademikoak kritikatzera lerratzen da. Lanbasen barne bakarrizketak nagusi diren atal honetan honelako alderaketak maiz topatuko ditugu: “Unibertsitateko irakasleen boneta guardia zibilen trikornioa edo kardenalen kapelua bezalakoa da. Autoritate akademiko gorenaren erakusgarri materiala” (84); edota “niretzat unibertsitatea administratzeaz arduratzen diren guztiek, sarjentu eginda amaitzen dute [...] Ez, sarjentu ez: alferrez,

milizia unibertsitarioetatik pasatakoak baitira, gehienak” (85).Era berean, unibertsitateak gizarteak duen funtzionamendu bidegabe berbera duela azpimarratzen eta kritikatzeko du, honek sortzen dituen hierarkia berberak oinarri dituela, izan ere, “antolamendu piramidal horrek [...] irakasleen subalterno aritzen ziren langileei ere eragiten zien” eta “horiek ere politikakerietan ibiltzen omen ziren, aski ongi ordaindutako postu bat harrapatu arte” (200). Lehenengo atalei dagokienez, laburbilduz, “egilearen beraren hitzetan, *euskal kultur sistemaren eta, bereziki, euskararen gehiegizko arautze eta formalismoa*-ren kontrako *alegatua* azaltzen zaigu” (Ezkerra, 2015).

Hurrengo ataletan, ordea, bestelako kritika-lerroak plazaratzen ditu, hala nola, prostituzioa, pederastia, emakume-salerosketa, drogak, kazetaritza eta informazio trafikoa... Gai hauek guztiak eleberriko pertsonaien eskutik landuko dira eta prostituzioa edo sexuaren negozioa izango dira erdigunean dauden gaiak. Eleberriak prostituzioaren gainean eskaintzen duen ikuspegiaren eraiketan Charo pertsonaia ezinbestekoa da; izan ere, prostituzioaren mundua barrutik ezagutzeaz gain lanpostua utzi izanaren arazoak ere zehazten ditu eta, are, prostituzioaren baitan zein kanpoan planteaturiko auzia eztabaidagarria ere agerian jartzen baitu: prostituzioa erregularizatzearen eta abolizionisten arteko gatazka, hain zuzen. Charok gai honen inguruan helarazi nahi duen mezua hainbatetan errepikatzen da eta bere hitz hauekin laburbil liteke: “Denetarik ikusi dut, baina inork ez nau behartu egon nahi ez nuen tokian egotera, eta sekula ez dut egin behar izan egin nahi ez nuenik. Negozio honetan ere mugak daude. Edo mugak egon behar direla uste dugunok bagaude” (273).

Kasu honetan, Charo bere burua birdefinitu eta berregituratu duen bere gisako *femme fatale* modura aurkezten zaigu, kodigo propioa duen emakume ahaldundua: *lumpen* giroan mugitu izan den arren, bere kabuz biziraun du eta are, bere gisakoen eskubideen aldeko borrokan buru-belarri murgilduta dihardu.

Bestalde, eleberri beltzetan ohikoa den modura, Lanbas protagonistaren laguntzailea izango da Charo, arrakastaz aurrera eramango duten ustezko bertsio ofiziala gezurtatuko duen euren ikerketa propioa garatzerako orduan.